


JAKINGARRIAK

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte – IRAKASLE ESKOLA – Eskoriatza



ESPERIENTZIA ARLOA

18. ZENBAKIA

1991ko Otsaila

JAKINGARRIAK

“JAKINGARRIAK” ZER DA?

“JAKINGARRIAK” Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasoten eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu diren baliabideak erizpide batzuen arabera izan dira aukeratuak:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruak erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, baita Euskara-koordinatzailearekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin liteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
 - Diapositibak
 - Bideoak
 - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak:

Irakasle Eskola: Nerea Alzola
Mariam Bilbatua
Juanjo Otaño
Resu Abasolo, OHOkoko irakaslea.

(Oharra: Komenigarria da etorri nahi dutenek aurrez abisatzea)

JAKINGARRIAK

18. ALE HONETAN

AURKITUKO DITUZUN INFORMAZIOAK

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

Liburu berrien albisteak

ORTEGA, R. (1990), "Jugar y aprender". Diada editoras. Sevilla.

TONUCCI, F. (1990), "¿Enseñar o aprender?. La escuela como investigación quince años después". Ed. Graó. Barcelona.

RUTTER, M. (1990), "La privación materna". Ed. Morata, Madrid.

Itzulpenak

HALIMI, L. -"Les activités d'éveil à l'esprit scientifique à partir de l'approche amusante des phénomènes de physique: Avec des aimants" in Découvrons et expérimentons, F. Nathan, Paris, 1982, 61-66 orr.

COMBETTES, B. -"Le texte explicatif: Aspects linguistiques". Pratiques n.51, septembre 1986.

Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak.

GAI MONOGRAFIKOA : ESPERIENTZIA ARLOA

• BIBLIOGRAFIA

• ARTIKULUAK

— Nerea Alzola: "Ingurune fisiko eta sozialaren aurkikuntza lantzeko hainbat ekintza".

— Izaskun Madariaga: "Ingurunearen probetxamendu kurrikularra".

— Udal Eskolaurrea: "Tradiziozko ospakizuna".


— Mariam Bilbatua: "Esperientzia arloa H2ren irakaskuntzan".

— Kurutziaga Ikastola: Ikastolako jaialdiak.-Ekintza bateratuen abiapuntua.

BALIABIDEAK

Antzezpenerako irudiak.

LIBURU BERRIEN ALBISTEAK



ORTEGA, R. (1990)
"Jugar y aprender"
Diada editoras. Sevilla


Haurreskolan jolasak duen garrantzia iadanik ez da zalantzan jartzen. Haurren garapen orokorrean paper nagusi bat betetzen du jolasak; ez bakarrik arlo motoreak, afektiboak, sozialak, kognitiboak eta mota guztietakoak landuz, baizik eta maila guztietako ahalmenen adierazpidea izanik ere bai.

"Iharduera ludikoaren bultzada zera da: alde batetik, inteligentzia sensoriomotorea eta, bestalde, bere apegoirudieki-komunikazio afektiboa. Jolasaren jatorri bikoitz honek, kognitibo-afektiboa, bihurtzen du iharduera ludikoa norberaren garapen psikologikorako lehen-tasuneko esparrua" (R. Ortega).

Oinarri teoriko honetatik abiatzen da autorea, jolasa hezkuntzarako faktore espontaneo bat dela eta bere erabilpen didaktikoa posible dela egiaztatuz. Ondoren, jolas soziodramatikoak aztertzen ditu, haurreskolako haurrenak bereziki bait dira, jolas-egoeretan irakaslearen funtzioa zein den adieraziz.

Irakaslea ikertzaile bat da eta behaketa partehartzailearen bidez burutu behar du bere lana: behatuz eta, bide batez, partehartuz.

Nola burutu behaketa, informazioaren bilketa eta tratamendua, eta ondorengo interpretapena, liburuaren azkenengo zatiaren aztergaia da.



TONUCCI, F. (1990)
"¿Enseñar o aprender?. La escuela como investigación quince años después".
Ed. Graó. Barcelona.

Eskolaren krisialdia, bere bizitza errealekiko urruntasuna, erreforma ezberdinetako garrantzia eta porrota —burutu behar dutenekin, irakasleekin hain zuzen, ez bait da kontaktu izan— F. Tonucciren azterketaren abiapuntua da.

Eskolak ez dauka hezkuntzaren monopolioa, eta bere xedea haurren posibilitateen ahal den garapen handiena bultzatzea da. Ikasle talde batetan, elkar konfrontazio eta kooperazioan, heldu kompetenteekin, esparru egoki batetan, ikasleen esperientzietatik abiatuz eta nortasunaren dimentsio guztiak erabiliz, burutzen da lan hau.


Eskolak beteko du funtzio hori, zenbait ezaugarri bereganatzen badu: eskolak eraikitzailea edo konstruktiboa izan behar du, beronetan bere ezagutzaren eraikitzailea haurra bera izanik; testuin-

guru honetan ikasleak, guztien partaidetzarekin, ahal den maila altuenak lortu ahal izan dituzan, irakasleak kondizio egokiak sortzen ditu.

Honelako eskola batek dibertsitatea asumitzen du, haurrari eta inguruari irekitasuna adierazten dio, edukiak elaboreatzeko erreferentzia moduan taldea hartzen duelarik. Beraz, irakaslearen formakuntzak ezaugarri hauek kontutan hartu beharko ditu.

Eskolari buruzko ausnarketa hau egin ondoren, bigarren zatian zenbait fitxa biltzen du, aurreko ideien aplikapen praktikoa adierazteko asmotan.

Gaur egun, Hezkuntz-Sistemaren Erreformari buruzko debate eta martxan jartzeko momentuetan, liburuak benetako gaurkotetasuna dauka.



RUTTER, M. (1990)
"La deprivación materna"
Ed. Morata. Madrid.

Haurren garapenean, eta gero helduaren nortasunean, gurasoek eta zaintzaileek, lehenengo bizipenek eta esperientzietan duten eragina inork ez du zalantzan jartzen.

Honen ondorioz, faktore ezberdinetako garrantzia azpimarratu egin da: haurren bizitzaren lehenengo urteak, testuinguru estimulatzaile, ama eta haurren arteko harremana, etab.; baina, bestalde, inketude edo angustiaren bat sortu da zenbait familiarengan, galdetuz ea haurrekiko urruntasuna -edo amak lana egiten duelako, edo haurra haurtzainde-

gira eramaten delako- geroko garapenerako kaltegarria izan daitekeen.

Hori da, ba, M. Rutteren liburuak planteatzen duen gaia.

Atzekimendu edo apegoari buruzko Bowlbyren ikerketak dira bere abiapuntua. Bowlbyk zera esaten zuen: "Haur txikiaren osasun mentalerako bere amarekiko bihotzeko, intimo eta etengabeko erlazioa bizi zezan funtsezkoa zela". Eta amatasunaren sei ezaugarri aipatzen zituen: "erlazio maitagarria, atzekimendura eramaten duena, puskatzen ez dena, estimulazio egokia ematen duena, beronetan atentzio maternala pertsona batek bakarrik ematen duena eta haurra bizi den familiaren barnean burutzen dena".

Ondoren, gai honekiko 1951tik 1980ra egindako ikasketak eta ikerketak aipatzen ditu, bere konklusioak zuzenduz eta oinarrituz:

- Lehenengo konklusioa zera da: atzekimendu-jokabidearen garrantzia eta beste pertsonetikiko etengabeko loturak finkatzeko, haur txikiak duen beharra; behar hauek beti errespetatu izan behar dira, familian, haurtzaindegian edo beste instituzioetan.

Behar hauek betetzen ez direnean, edo haurren inguruan aldaketaren bat ematen baldin bada, kalteak handiagoak edo txikiagoak izango dira honen araberak: haurren zenbait ezaugarri (adina, sexua, tenperamentua, familia

barruan duen lekua, ...), aurreko esperientziak, egoera berria, etab., bere ama ez den beste pertsonetikiko haurren harremanaren garrantzia azpimarratzen delarik.

- Askotan aipatutako periodo kritikoak edo sensibleak zalantzan jartzen ditu; halere, haurtzaroan gertatzen dena garrantzitsua dela egiaztatzen du, geroko minberatasunean eragina bait du, gehituz edo gutxituz tentsioen aurrean izan dezakeen sensibilitatea.

- Azkenez, zera esan daiteke: haurri eragin diezaioketen faktore negatiboak hauek dira: atzekimendujokabidearen interferentzia eta inguru ezezagun eta bildurgarri baten ondorioak; atzerapen intelektuala esperientzia esanguratsuen ezarekin lotuta egon daiteke; jokabidearen alterazioak, neurri batean, familiaren diskordiari eta pertsonarteko harreman ez-ohizkoei erantzuna izan daitezke.

Orokorki, bere inguruan bizi ziren pertsonetikiko lotura egonkorrak eta etengabekoak eraikitzeko haurrak duen beharra planteatzen du liburuak. Bere heldutasun-garaian ondorioak izango ditu horrek, bai baliabide kognitiboen arloan eta baliabide afektiboen arloan. Bai familiak, eta bai haurtzaindegiak eta haurtzaroko beste instituzioek behar hau kontutan hartu beharko dute. Batzuetan liburuak nahiko eruditoki bilakatzen da.



Jean Epstein-Zaii

ITZULPENAK

HALIMI, L.

“Les activités d'éveil à l'esprit scientifique à partir de l'approche amusante des phénomènes de physique: Avec des aimants” in Découvrons et expérimentons, F. Nathan, Paris, 1982, 61-66 orr.

Jugando con los imanes

Fisika ezagutza lantzeko hainbat ekintza eta eguneroko egoera egokiak ezagutzen ditugu.

Imana, oso ezaguna den objektu hura, berak duen “majia” rekin, kontzeptu eta jarrera asko lantzeko baliabide interesgarria izan daiteke.

Artikulu honetan, imanak eta material arrunt batzuk erabiliz, autoreak ekintza desberdinak egiteko eta haurra jarrera zientifiko baten bidean jartzeko, hainbat pista, helburu eta proposamen eskeintzen ditu.

Ekintza guztiak ondo oinarrituta aurkezten dira eta autoreak eskema hau jarraitzen du:

1. Helburuak
2. Materialak
3. Hezkuntz-prozesua
4. Hainbat ekintza

Artikulu oso interesgarria dela iruditzen zaigu, fisikaren ezagutza barnean imana eta berak ekar ditzakeen ahalmen pedagogiko sistematizatuak nahiko ezezagunak bait dira.

COMBETTES Bernard

“Le texte explicatif: Aspects linguistiques”.
PRATIQUES N. 51, septembre 1986

EL TEXTO EXPLICATIVO: Aspectos lingüísticos

Bernard Combettesek artikulu honetan ikasleek testu esplikatiiboak ulertzeko dituzten zailtasunak aztertzen ditu. Artikuluaren egileak hiru galderen bidez sailkatzen ditu ulermen zailtasun hauek:

Lehendabizikoa, “Amankomunean dagoen ezagupena” da. Puntu hau honela azaldu daiteke: testu batetan hartzaileak ezagutzen duen informazioa eta gaineratzen zaion informazio berriaren arteko oreka.


Bigarrena “Informazio dentsitatea” da; hau sintaxiaren konplexutasunaz erlazonatu daiteke: menpekotasuna, yuxtaposizioa,... Honen arabera testu baten ulermenak, indize linguistikoez baliatuz, martxan jartzen du unitate informatiboaren arteko ierarkia ezagutzeko ahalmena.

Hirugarrena, “Progresio tematikoaren mota desberdinak”, hau da perpausen arteko kateamenduaren gauzatzea, nola garatzen diren hipertemak,...

Autoreak hiru alderdi hauek aztertzen ditu, berak aukeratutako hainbat eskola esku-liburutako testuetan oinarrituz. Aukeratu dituen testu liburuak giza gaietakoak dira, geografia eta historiakoak, hain zuzen.

Egia esan, eta bere ustez, esku liburutako testu esplikatiibo gehienek ez diote irakurleari ulermena errazten.


Artikuluaren interesaz edota erabilpenaz hitzegin behar izango bagenu, zera esan genezake: egileak eginiko azterketak ez du aplikazio zuzenik irakas-kuntzaren eguneroko lanetan, baina bere aportazioa aberatsa izan daiteke bai gure ikasleek dituzten ulermen zailtasunak interpretatzeko, eta bai esku-liburutako testu esplikatiiboak ebaluatzeko.



ALDIZKARIAK

CUADERNOS DE PEDAGOGIA

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 182, 1990eko ekaina



TORRES, J.: “Niños visibles y niñas invisibles”, 66-72 orr.

Ikasleekiko irakasleen “espektatibak” eragin handia daukate haurren ikaskuntzan eta garapenean.

behar den irakaslea edo hezitzailearen profila, titulazioa eta formakuntzari buruz hainbat proposamen egiten du.

MARTIN, E.: “Un esfuerzo con sentido”, 71-73 orr.

Elena Martinek Erreformari buruz erreflexio orokor bat eskeintzen digu: kurrikuluma, irakasleen garrantzia, formakuntza, hartu behar diren neurriak,...

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 184, 1990eko iraila

LOGSEri buruz hainbat artikulua:

SOLANA, J.: “Reforma e innovación educativas”, 8-9 orr.

MARCHESI, A.: “Profesores, centros docentes y calidad de la educación”, 10-14 orr.

JIMENEZ, J., BERNAL, J.L.: “Las cuestiones básicas”, 15-24 orr.

NAVARRO, M.: “Los sonidos”, 40-42 orr.
Soinuen lanketa: motibazioa, entzumena, soinu berrien sormena,...

BATZU: “La educación sexual en el ciclo inicial”, 48-50 orr.

“Canarias”eko sexu-hezkuntzarako “Harimaguada” programaren azalpena.

FORTUNY, M.: “Educación para la salud”, 119-121 orr.
Bibliografía, helbide eta erreferentzia interesgarriak.

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 185, 1990eko urria

SANCHO, J.M.: “De la evaluación a las evaluaciones”, 8-11 orr.

Gaur egun ebaluazioaren esparrua oso zabala da. Auzoreak ebaluazioaren arlo desberdinak aurkezten dizkigu.

CUADERNOS DE PEDAGOGIA 183, 1990eko uztaila-abuztua


Erreformaren, eta Haur-Eskolaren inguruan konkretuki, hainbat artikulua:

MOLINA, L.: “De la concepción a la actuación”, 12-16 orr.

Autoreak oinarrizko kontzeptu psiko-pedagogikoak aurkezten dizkigu: Haur-eskolaren funtzioa, haurren ikaskuntzarako ahalmena, interakzioa,...

TERRADELLAS, R.: “Organización de los contenidos”, 18-21 orr.
Haur-Eskolaren funtzioa, edukien antolaketak, ikaskuntza, jolasa eta lana, globalizazioa,...

PEREZ, R.: “La profesionalización a debate”, 27-28 orr.
Artikuluaren egileak Haur-Eskolan egon



HERNANDEZ, F.: "El curriculum", 12-14 orr.

Kurrikulumaren ebaluazioak hezkuntza-planifikazioaren azterketa eta sakonketa eskatzen die irakasleei, hezkuntzaren kalitatea lortzeko bide garrantzizkoa izanik.

CARBONELL, L., MASES, M.: "El proceso de enseñanza y aprendizaje", 16-19 orr.

Ebaluazioak garrantzizko eginkizuna dauka: ikasleen ikas-kuntza prozesuak ezagutzea eta hobetzea.

SANTOS, M.A.: "El centro", 26-27 orr.

Ikastetxe bat nola ebaluatzen da? ikasleen noten kriterioa bakarra al da?



WILSON, J.: "El profesorado. Tendencias en Europa", 28-29 orr. Nola dakigu irakasleen lana kalitatezkoa den?. Autoreak gaurko tendentzia desberdinak azaltzen ditu.

SANCHO, J.M., MESTRES, J.: "Para saber más", 36-37 orr. Ebaluazioari buruzko bibliografia.

PLA, M., PRATS, J.: "Comprender y descubrir", 52-57 orr.

Bartzelonako Zientziaren Museoan haur txikiak daukaten espazioaren azalpena: helburuak, antolaketa, zientzien ezagutza,...

COLL, C.: "Los ejes de la Reforma en su dimensión cualitativa", 67-73 orr.

Colle Erreformaren irakurketa eskeintzen digu: aldaketak, helburuak, ahalmenak, iluntasunak,...

L'ECOLE MATERNELLE

L'ECOLE MATERNELLE 8, 1990eko maiatza

• Soinketa

BATZUK: "Motricité de locomotion", 25-26 orr.

LEFEVRE, A.M., DUBIEF, G.: "Motricité de manipulation", 27-28 orr.

LEFEVRE, A.M., DUBIEF, G.: "Motricité d'expression et de communication", 29-30 orr.

• Matematika

Courteau, J.: "Exploitation du tangram", 39-40 orr.


• Esperientzi arloa

BOUCHER, M.J., CRESSON-FRIGOLA, G.: "L'air dans le vécu d'une classe: explorer, découvrir, fabriquer", 41-42 orr.

BATZUK: "Des connaissances anatomiques spontanées à la découverte scientifique du corps", 43-44 orr.

• Dantza

BODAK, S.: "Maîtrise: être à l'aise", 53-54 orr.



L'ECOLE MATERNELLE 9, 1990eko ekaina

RAPOPORT, D.: "Le développement de l'enfant", 3-7 orr.

LAGET, P.: "La dyslexie", 15-20 orr.

• Soinketa

BATZUK: "Synthèse et bilan (3 fitxa)", 21-26 orr.

• Matematika

COURTEAU, J.: "Exploitation du tangram", 35-36 orr.

• Esperientzi arloa

CRESSON-FRIGOLA, G.: "Quelques instruments à vent", 37-40 orr.


POISSON, P.: "Maîtrise, j'ai mal au ventre", 41-44 orr.

• Dantza

BODAK, S.: "Faire 'un' avec son corps", 51-52 orr.

• Txontxongiloa

LE MAITRE, A.: "Marionnette marotte", 55-56 orr.




L'ECOLE MATERNELLE 1, 1990eko iraila

ROFTUS, D.: "L'agressivité", 5-6 orr.

DIMANCHE, J.F.: "Les rythmes biologiques des enfants", 11-15 orr.

DELAS, V., DAGOURY, M.: "Pour une rentrée réussie", 17-18 orr.

DIMANCHE, A.: "L'eau, activité sensorielle", 19-20 orr.



• Hizkuntza

MATTEI, J.: "Un chemin vers un meilleur langage", 21-22 orr.

HEQUET, F.: "Situations d'écrit", 27-28 orr.

• Matematika

MICONNET, E.: "Maîtrise, ça va où?", 23-24 orr.

BOURGOINT, P.: "Le lièvre et la tortue: un jeu mathématique", 35-36 orr.

• Esperientzi arloa

AUDOUY, J.: "A la découverte du fonctionnement de l'aspirateur", 25-26 orr.

KROSNICKI, J.M.: "Activités technologiques", 39-40 orr.

BOURDOT, M.F.: "La main", 41-42 orr.

• Ikusentzungailuak

LEROUX, M.: "Leçons sur l'image", 45-46 orr.

CHEVREUIL, M.: "L'enfant réalisateur vidéo", 47-48 orr.

• Musika

FRAPAT, M.: "Du rôle de l'environnement sonore: petite musique de pluie", 51-52 orr.



KAMII, C.: "¿Qué aprenden los niños con la manipulación de objetos?", 7-10 orr.

Piageten teorian oinarriturik, artikularen autorea manipulazioak dakarren ikaskuntzaz mintzaten da.

LEGGIO, M.L., MONTOLI, R.: "La adaptación del niño en la escuela infantil", 11-17 orr.

Haurren gorputzak badu esatekorik, eskolara lehenengo aldiz joaten denean...

MAJEM, T.: "La higiene corporal: medio de relación personal", 19-20 orr.

Garbitasunaren inguruan eguneroko ohituren garrantzia: komunikazioa, hizkuntza, afektibitatea, osasuna,...

LURCAT, L.: "El fracaso en la escuela infantil", 25-27 orr.

Autore ezagun honen porrot eskolarra Haur-Eskolan hasten dela edo gutxienez prestatzen dela esaten du.

FORES, C.: "El masaje de los niños: un arte tradicional hindú", 28-30 orr.

CANDELA, M.: "La alimentación del niño en verano", 33-37 orr.

Udarako oinarritzko proposamenak eta menuak.

MARTIN, A.: "Accidentes domésticos infantiles", 38-41 orr.

Etxean gertatu daitekeen hainbat istripu.

INFANCIA - Educar de 0 a 6 años - 3, 1990eko iraila-urria

INFANCIA

INFANCIA - Educar de 0 a 6 años - 2, 1990eko uztaila-abuztua

Codina, M.T.: "Más vale atender a tiempo que compensar", 4-6 orr.

Haurra nola heltzen zaigu eskolara? zein hutsune, behar, gogo dauzka?. Bere egoera ezagutzea irakaslearen eginbeharra da.



COLOMER, J.: "¿Trabajo en equipo? No gracias", 4-6 orr.

Irakasleen arteko elkar-lanak dakarren zailtasuna.

DOLCI, M.: "Las sombras en la escuela infantil", 7-15 orr.
Itzalen lanketaren ahalmenak Haur-Eskolan.

SOGAS, T.: "Una dama de compañía: la fotografía", 19-21 orr.

Argazkia tresna pedagogiko garrantzizkoa da: bakoitzaren historia eta identitatea lantzeko, afektibitatea eta komunikazioa indartzeko,...

QUEROL, X.: "Los niños maltratados", 28-31 orr.

Hurrek jasaten dituzten tratu txarren historia eta gaur egungo egoera.

RAFOLS, A.: "Conversación con un pintor", 33-35 orr.

Plastikaaren garrantzia gizarte eta eskolaren arteko harremanak sakontzeko.

RAPISARDI, G., DONZELLI, G.P.: "El sueño de los niños y las preocupaciones de los padres", 36-39 orr.

MARTIN, A.: "Accidentes domésticos infantiles (y II)", 40-43 orr.

Etxean gertatu daitekeen hainbat istripu.

INFANCIA 54, 1990eko maiatza-ekaina



COLOMER, J.: "Festes sí, festes no, a l'escola", 4-6 orr.
Herri-kulturaren integratzea lortzeko, jaiak bereganatzea eta ospatzea bide garrantzizko bat izan daiteke...

LOPEZ DEL CASTILLO, L.: "Quina llengua, quina escola", 7-10 orr.

Inmersio plana Haur-Eskolan.

FERRIER, J.: "Qui s'ocupa dels nens petits?", 11-16 orr.
Haur txikien hezkuntzaren egoera gaur Estatu Batuetan.

MAJEM, T.: "Dins la fosca, tot d'una", 20-23 orr.
3 urteko hurrekin egindako esperientzia: linternak erabiliz, argiaren inguruan egin daitekeen "ikerketak".

LLUCH, G.: "El nen petit i la televisió", 25-27 orr.
Telebistaren garrantzia haur txikien bizitzan eta hezkuntzan.

COTS, J.: "Violència contra l'infant. Els maltractes intra-familiars", 29-31 orr.

Etxean tratu txarrak jasotzen dituzten haurrak...

VIANELLO, R., MARIN, M.L.: "Més enllà del tabú. El nen i la comprensió de la mort", 33-35 orr.

PAGANI, C., ROBUSTELLI, F.: "Comportaments del nen en relació amb la mort", 36-39 orr.

Heriotzaren aurrean haur txikien ezagutza eta galderak.

INFANCIA 55, 1990eko uztaila-abuztua



THIO DE POL, C.: "Paper de l'educador en el joc del nen", 4-7 orr.

Helduen jarrera haurren jolas-munduan.

FALK, J.: "Els infants a Hongria", 11-18 orr.

Haur txikien egoera Hungarian.

VALVERDE, M.: "Dinar al menjador dels grans", 19-22 orr.

Bazkari orduaren garrantzia Haur-Eskolan.

ARTIGAL, J.M.: "La inmersió a parvulari", 24-27 orr.

Inmersioa Haur-Eskolan.

COMAS, I.: "Quan considerem l'infant en risc psicossocial?", 32-36 orr.

Nor egon daiteke "marginatu soziala" izateko arriskuan?

QUEROL, X.: "Maltractaments intrafamiliar", 37-41 orr.


Etxeke tratu txarrak.

INFANCIA 56, 1990eko iraila-urria

ROS, R.: "El parlar fa parlar", 6-10 orr.

Aho hizkuntza komunikatzeko, mundua ezagutzeko, garrantzizko tresna da.

COLS, C., BASSOLS, M., OLIVERAS, A.: "El plaer de la sorpresa, l'art de la investigació", 11-16 orr.



Bi urtetako haurrek egindako ikerketa: "Fundació Miró"ren espazioaren aurkikuntza.

ALVAREZ, C., BASSEDAS, M., GAMITO, D.: "Activitats d'experimentació física", 18-23 orr.
Fisika ezagutzaren inguruan hainbat ekintza.


LURCAT, L.: "Què es actualment saber escriture i llegir?", 25-27 orr.
Irakurketa eta idazketarako eskolak jarri behar dituen kondizioak.

TAKAHASHI, H.: "Quan les meres treballen", 28-35 orr.
Haur txikien hezkuntza Japonen.

PASCUAL, M.A.: "Urticària i al·lèrgia alimentària", 37-39 orr.
Elikadurak dakarren hainbat alergia.

CLIJ

CLIJ 19, 1990eko Uztaila/Abuztua



CALLEJA, S.: "Los cuentos de Calleja", 8-13 orr.

Calleja argitaletxearen lana liburuen zabalkuntzan.

BENITEZ, E.: "La insólita suerte de "Pinocho" en España", 14-18 orr.

Pinochoren berezitasunak Espainian.

DIAZ-PLAJA, A.: "Donantoniorrobles", 19-21 orr.

Antonio Robles, haur literaturan aintzindari.

DORAO, M.: "Elena Fortún y Celia: retazos de vida y sueños", 22-26 orr.

Elena eta Celiaren (bere pertsonaia) arteko paralelismoak.

BRAVO-VILLASANTE, C.: "Borita Casas, la eterna niña", 27-30 orr.

Borita Casa "Antoñita la fantástica" bere obra.

ORTIZ DE LANDAZURI i BUSCA, G. de.: "Josep Maria Folch i Torres. Cuando un escritor fascina a sus lectores", 31-35 orr.

Idazlearen biografia eta bere obraren aspekturik garrantzitsuenak.

CASSINI, M.: "Italia: Libri per ragazzi", 50-56 orr.

Haur-gazte literaturaren egoera Italian.

CLIJ 20, 1990eko iraila

TUBAU, G.: "Imágenes táctiles", 8-11 orr.

Haur itsuek ere irudiak beharrezkoak dituzte lehen ikasketetan.

BARCENA, C.G.: "Virginia Allen Jensen", 12-15 orr.

Haur itsuentzako produkzio literarioaren egoerari buruzko gogoetak.

"Una editorial llamada ONCE"

ROIG, C.: "Libros y Bibliotecas para niños ciegos", 17-18 orr.

PACHECO, T.: "Los centros de producción bibliográfica y la ilustración de textos", 18-19 orr.

Zentru hauetako funtzionamendua eta antolatzen dituzten aktibidade desberdinak.

TORMO, E.: "Diagramación y espacios. Claves de diseño", 20-22 orr.

Haur itsuentzako liburuen diseñua.

RICART, M.: "En familia", 26-28 orr.


Ikumenezko irudiak.

FLOTATS, R.: "En las aulas"


Haur itsuentzako literatur esperientziak.

BINIÉS, P.: "Programa de animación a la lectura", 32-34 orr.

Ricardo Alcantararen eta Pilarín Bayésen esperientziak irakurketa animazioari buruz eskoletan.



CLIJ 21, 1990eko Urria



LASTREGO, C. eta TESTA, F.: "Del libro a la televisión ... de la televisión al libro", 8-16 orr.

Irakurketa eta telebistari buruzko ikerketa eta burutazio batzuk.

PEREZ MILLAN, J.A.: "La fascinación de las imágenes", 18-24 orr.

Telebistaren sarrera orokorrak kontraesanak sortarazten ari da gure kultur jokaeretan.

ALONSO ERAUSQUIN, M.: "La batalla de la pantalla", 26-30 orr.

Telebista, liburuaren lehiakide edo aliatu haurren aisi tartee-tan?

DOMINGUEZ, A.: "El hechizo de Arthur Rackham", 48-53 orr.

Arthur Rackhamen lana ilustrazio munduan.

CLIJ 22, 1990eko Azaroa

SANTERBAS, S.R.: "Lewis Carroll: espejo deformante de la Inglaterra victoriana", 8-24 orr.


Lewis Carrollen biografia. Pertsonai berezi eta eztabaidatsua.

MARISTANY, L.: "La narrativa de Lewis Carroll", 28-36 orr.

Lewis Carrollen narratibaren berezitasunak: genero askoren konfluentzia, kontu tradizionalatik "nonsense-ra".

LABORDA, X. "Rusia y el Snark: un viaje y un delirio", 38-46 orr.

Lewis Carrollen bi titulu hauen bidez Labordak idazlearen nortasun bikoitza agertzen digu.



DURAN, T.: "Cosa de locos. Los ilustradores de Alicia", 48-53 orr.

Aliziaren ilustratzaileak Tennielengandik Dalirenganaino.

LALANDA, J.M.: "A ambos lados del espejo. Ciencia y disparate en la obra de ficción de Lewis Carroll", 54-62 orr.

Carroll idazlearengan Dodgson matematikoaren eragina.

COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION

COMUNICACION, LENGUAJE Y EDUCACION 6, 1990

Constance Kamii: Linda Joseph: "La enseñanza del valor posicional y de la edición en dos columnas"

Artikulu honen autoreek batuketaren automatizazioa, arauen ulermenean oinarritzea proposatzen dute. Horretarako, eskolak erabiltzen dituen hainbat estrategia aldatzea proposatzen dute, estrategia berrien adibideak ematen dituztelarik.

Carme Amorós eta Maria Rosa Mira: "El lenguaje y las matemáticas


en la propuesta curricular para la educación infantil del Departament D'ensenyament de la Generalitat de Catalunya".

Autoreek 1988an Generalitateak argitaratutako proposamen kurrikularren berri ematen dute. Proposamen honetan egiten den arloen banaketan, ahozko hizkuntza eta matematika "interacción y lenguajes" deituriko atalean kokatzen dituzte, eta lenguaje bezala atal biok betetzen dituzten hiru funtzio edukitzen dira kontuan.

Programaren edukiak M.E.C.ek geroago egindako programan agertuko den eduki banaketa bera azaltzen da: Kontzeptuak, Prozedurak, Jarrerak.

Liliana Tolchinsky: "Lo práctico, lo científico y lo literario: tres componentes en la noción de 'alfabetismo'".

Alfabetizatua izateko ez da nahiko alfabetua ezagutzeko. Baiez-tapen honetik abiatuz, autoreak gaur egungo alfabetatu kon-



tzeptua argitzen ahalegintzen da eta alfabetazioaren hiru osagarri azaltzen ditu:

- Idazketaren balioa eguneroko bizitzan izaten ditugun erabileraren jabe izateko.
- Irakurketa idazketaren balioa informazio ezberdinen jabe izateko.
- Irakurketa eta idazketaren balioa literaturaz jabetzeko.

Autoreak, hiru funtzio hauek eskolako programetan sartzea proposatzen du.

Daniel Cassany: "Enfoques didácticos para la enseñanza de la expresión escrita"

Autoreak irakurketa-idazketaren ikaste prozesua bideratzeko dauden enfoke metodologikoak lau multzotan sartzen ditu, artikuluan zehar enfoke bakoitzaren oinarri teorikoak, metodologiak eta gelan sortzen dituzten praktika konkrituak aztertzen ditu.

LECTURA Y VIDA

LECTURA Y VIDA, 1990eko Iraila

Ana Teberosky: "El lenguaje escrito y la alfabetización"

Autoreak aurkezten duen ikerketaren helburua, giro alfabetatuetan ikasleek (haurrek eta helduek) garatzen dituzten ezagupenak aurkeztea izanik, artikuluan zehar iharduera didaktikoa bideratzeko apendizaien zenbait teoriaren aplikapena ikus dezakegu: teoria psikopedagogikoak, hizkuntzaren irakaskuntz esanguratsua (apendizaje constructivo) zein psikolinguistikoak: testuen pedagogia.



Berta P. de Braslausky: "Hacia un paradigma didáctico de la enseñanza inicial de la lecto-escritura"

Autoreak eredu didaktikoen bila-kaera eta irakurketa-idazketaren irakaskuntza paraleloki aztertzen ditu. Bilakaera honetan eta gaur egungo psikolinguistikaren aportazioak kontu-

tan edukiz, eredu berri baten beharra azpimarratzen du. Hone-taz gain, definitu egiten ditu zeintzuk diren eredu honen oinarrian egon beharko liratekeen erizpideak.

Mabel Condemarin, G.: "Los libros predecibles: características y aplicación"

Autoreak, haur txikiak eta irakurketa eta idazketan arazoak dituzten gazteei liburu predezibleek aportatzen dizkieten abantailak aztertzen ditu. Liburu predezibleen eduki ezberdin posibleak azaltzen ditu. Predikzioa nola bultzatzen duten eta predikzioaren garrantzia azpimarratzen du.

Liliana Tolchinsky: "Nuevas investigaciones sobre el lenguaje escrito y la alfabetización"

izenburupean "2. Congreso Latinoamericano de lecto-escritura"n aurkeztutako ponentziak argitaratzen ari dira "Lectura y vida" aldizkarian. Zenbaki honetan, Liliana Tolchinskyk aurkeztutakoa argitaratzen da. Autoreak ama hizkuntza hebraiera duten haurren irakurketa eta idazketaren garapen prozesua aztertzen du.

Berta R. de Gueller, Mirta M. de Kosiner y Edda L. de Zenuma: "El 'libro de lectura' frente al 'libro de actividades'"

"Irakurgaien liburua" eta "ariketen liburu"en beharra eta bete behar lituzketen baldintzak dira artikulua honetan aztertzen diren gaiak.

Lehenengoari dagokionez, irakurgai kontestualizatuen beharra azpimarratzen da; bigarrenari dagokionez, berriz teoriko batean kokatu behar direla azpimarratzen du. Bestalde material hauek proposamen zabalak eskeini behar dituzte ikasleak eta irakasleak liburuaren koautore bihurtuz.



Jean Epstein-Zaï

ESPERIENTZIA

ARLOA

Haur-Eskolaren Oinarrizko Diseinu Kurrikularrak (M.E.C., 1989) hiru area kurrikular nagusi ditu: Identitatea eta Autonomia pertsonala, Ingurune fisiko eta sozialaren aurkikuntza, Komunikazioa eta errepresentazioa. Hiru areak erlazio estua dutela uste dugu eta bizitzaren ezagutzak, bizipenak eta beste aspektu batzuekin batera doazen sentimentuak inplikatzeko dituela, pertsonaren garapena ahalbidetzen dutelarik.

Irakaskuntzaren helburuetako bat, umeei etorkizunean gizon eta emakume autonomoak izan daitezten laguntzea da, komunikaziorako irekiak, jakinguratsuak, galderak egiteko gaituak eta beren ingurunearekin harreman kritikoan bizitzeko gaituak izaten laguntzea alegia. Heldutasun hau gertuko ingurunearen ezagupena dela medio lortuko du, eta soilik fisikoki, afektiboki eta intelektualki konprometitzen dituzten iharduera jakin batzuren bidez.

Eginkizun honi dagokionez, egungo egoeran eskola ordezkae-

zina da; eskolak esparru hezitzaile egokia eskaini diezaioke haurrari materiale egokitu eta ezberdinen bitartez, helduen laguntza eta estimulua ere kontuan hartzen direlarik.

Horretarako, "eskolak adin honetako haurrek erakusten duten errealitatean inziditzeko eta errealitate hori ezagutzeko gogoia eta jakinmina du, baita iharduera eta esperimentaziorako joera ere. Iharduera eta esperimentazio horren bitartez iharduerak antolatzeke erabilgarriak izan behar ko luketen eduki batzuri hurbiltzeko posibilitatea ere badu, helburua, errealitateari progresio batean egokitutako kontzeptuen formakuntza eta errealitatea behatzeko eta honengan inziditzeko prozedura eta estrategia aproposen erabilera delarik. Halaber, haurraren ingurune fisiko eta soziala gauzatzen duten elementu eta sistema ezberdinen balorazioa, zoinketa, begirunea eta jakin mina bultzatzeko posibilitatea du eskolak". (DCB, M.E.C., Madrid, 1989, 141. orr.).

Area honetan azpimarkatu beharrezkoak dira ingurunea ezagutzeak duen garrantzia (Charon-ek dion bezala, ezagutzea errealitatearekiko dugun jarrera da, errealitatearekiko esnatze etengabea) eta zientziarako sarbidea, sarbidea emateko oinarrizko prozedurak ("... umeak errealitatearekin ihardutea eta bere ihardueren emaitzak egiaztatzea apendizai metodo pribilegiatua da ..."- DCB, M.E.C., Madrid, 1989, 144 orr.-) eta ingurune sozialarekin, naturarekin eta gauzeekin topo egiteko eta harremanak izateko egokiera ematen duten iharduera konkretu batzuren beharra ("...haurrari behatzeko, partizipatzeko eta hezi nahi den esparruetan inziatibak izateko parada eman"- DCB, M.E.C. Madrid, 1989, 144 orr.).

Iharduera hauek ezagutzaren esparru ezberdinetakoak izan daitezke, sarritan intererlazionatuta daudelarik: ezagutza fisikoa, naturala, soziala, kulturala eta norbere buruaren ezagutza. Bereizketa hau egiten dugu esperientzi arloari buruzko oinarrizko bibliografia aurkeztean

BIBLIOGRAFIA:

ARTIKULUAK:

OROKORRAK:

BATZU (1988): "Actividades en el Ciclo Inicial", Cuadernos de Pedagogía, 156, 18-20 orr.

COLS, C. (1984): "Diari d'una mestra d'escola-bressol, d'on reproduim algunes observacions de 2 anys i mig", Infància, 17, 15-17 orr.

CHIESA, B. (1975): "Razones pedagógicas de la investigación del medio", Cuadernos de Pedagogía, 10, 2-5 orr.

DELVAL, J. (1983): "La enseñanza de las ciencias puede ser divertida", El País Educativo, 43 orr.

DIEZ, M.C. (1989): "Pisando tierra", Cuadernos de Pedagogía, 173, 28-29 orr.

E. INFANTIL EL CARGOL (1987): "Observar es aprender", Cuadernos de Pedagogía, 144, 71-75 orr.

FEU, M.T., VILARNAU, M.T. (1990): "Observar y experimentar con los pequeños", Infancia, 1, 32-35 orr.

GENE, A. (1985): "¿N'hi ha prou amb observar i experimentar?", Infància, 27, 14-18 orr.

GOMEZ, J., SOLER, C. (1990): "El libro de las cosas importantes", Infancia, 2, 22-24 orr.

GUARDERIA EL TREN (1980): "Primeras observaciones, primeras experiencias", Cuadernos de Pedagogía, 67, 25-26 orr.

HERRERO, C., GONZALEZ, M. (1984): "Una experiencia en el ciclo inicial", Cuadernos de Pedagogía, 109, 10-13 orr.

KAMII, C. (1990): "¿Qué aprenden los niños con la manipulación?", Infancia, 2, 7-10 orr.

LOBO, E., SIGO, M.A. (1983): "La observación como método de trabajo en la escuela infantil", Cuadernos de Pedagogía, 105, 68-69 orr.

LURCAT, L. (1987): "La socialització dels nens al parvulari", Infància, 35, 4-13 orr.

LLORENS, M. (1980): "La ciencia: puente entre el niño y su medio", Cuadernos de Pedagogía, 67, 28-30 orr.

MARTINEZ, M.C. (1984): "Experiencias en preescolar", Cuadernos de Pedagogía, 119, 80-83 orr.

MOLINA, L. (1985): "La relació adults-infants, quelcom que participa en l'autoconstrucció de la, propia identitat individual i social", Perspectiva escolar, 91, 14-20 orr.

PUJOL (1979): "¿Es necesario educar la observación?", Reforma de la escuela, 4, 5-13 orr.

RENOM, V., SANCHO, N. (1989): "Una manera de fer ciències a l'escola", Infancia, 49, 22-24 orr.

ROIG, T. (1980): "Explorar, buscar, tocar, probar", Cuadernos de Pedagogía, 67, 22-24 orr.

ROIG, T. (1984): "Una experiencia de educación sensorial", Cuadernos de Pedagogía, 110, 67-68 orr.

TONUCCI, F. (1978): "¿La ciencia para el niño o la ciencia del niño?", Cuadernos de Pedagogía, 38, 17-20 orr.

WEISMANN, H. (1983): "La enseñanza de la ciencia en el parvulario", Cuadernos de Pedagogía, 102, 64-66 orr.

FISIKA EZAGUTZA ETA TEKNOLOGIA:

AUDOUY, J. (1990): "A la découverte du fonctionnement de l'aspirateur", L'Ecole Maternelle, 1, 25-26 orr.

BATZU (1989): "Phénomène physique: l'ombre", L'Ecole maternelle, 8, 27-28 orr.

DIEZ, C. (1990): "Dar en el blanco", Cuadernos de Pedagogía, 178, 36-38 orr.

KAMII, C. (1978): "Las ciencias en la educación Preescolar", Cuadernos de Pedagogía, 37, 21-23 orr.

KROSNIKI, J.M. (1990): "Activités technologiques", L'Ecole Maternelle, 1, 39-40 orr.

NATURA EZAGUTZA:

(1990): "Atrapa insectos", Infancia, 2, 21 orr.

BATZU (1989): "Elevage des tourterelles", L'Ecole maternelle, 4, 35-36 orr.

BATZU (1989): "Les jacinthes", L'Ecole maternelle, 6, 37-38 orr.

BATZU (1989): "Les jacinthes", L'Ecole maternelle, 7, 37-38 orr.

SEGURA, C. (1989): "El fondo del mar", Cuadernos de Pedagogía, 176, 33-35 orr.

GIZARTE EZAGUTZA ETA JAIK:

DIEZ, M.C. (1989): "Te quiero, Alejandra", Cuadernos de Pedagogía, 175, 30-31 orr.

FERNANDEZ, M.L. (1978): "Habits i pautes de comportament", Perspectiva escolar, 25, 2-8 orr.

VALERO, L. (1990): "La Alhambra", Infancia, 1, 26-31 orr.

ALONSO, M.A. (1989): "Feliz cumpleaños", Cuadernos de Pedagogía, 174, 42-43 orr.

COLOMER, J. (1990): "Festes sí, festes no, a l'escola", Infancia, 54, 4-6 orr.

DIEZ NAVARRO, M.C. (1986): "La fiesta de la paz", Cuadernos de Pedagogía, 140, 10-12 orr.

DIEZ, M.C. (1985): "El día de los abuelos", Cuadernos de Pedagogía, 129, 27-29 orr.

GATIN, R. (1984): "Noël, un moment privé legié pour vivre en grand groupe", L'Écol maternelle, 0, 45-48 orr.

HERNANDEZ, I. (1988): "Navidad en escuela", Cuadernos de Pedagogía, 165, 41 orr.

PERRAMON, N. (1985): "El carnaval parvulari", Guix, 88, 51-53 orr.

RAFOLS, R. (1985): "Los carnavales", Colaboración, 49, 55-56 orr.

RICART, M. (1986): "La Navidad vivida en la escuela", Comunidad Escolar, 83, 7 orr.

NORBERAREN EZAGUTZA:

(1978): "Cuando eramos más pequeños", Reforma de la escuela, 1, 12-15 orr.

BATZU (1989): "La historia personal", Cuadernos de Pedagogía, 174, 48-52 orr.

DIEZ, M.C. (1989): "Te quiero, Alejandra", Cuadernos de Pedagogía, 175, 30-31 orr.

HIDALGO, M.V. (1989): "Bebés ante el espejo", Cuadernos de Pedagogía, 167, 52-54 orr.

LOCQUENEUX, N. (1986): "Connais-tu tes mains?", L'école maternelle, 3, 55-58 orr.

LOCQUENEUX, N. (1987): "Connais-tu tes mains?", L'école maternelle, 4, 53-56 orr.

PAGANI, C. ROBUSTELLI, F. (1990): "Comportaments del nen en relació amb la mort.", *Infància*, 54, 36-39 orr.

PERRE, G. (1985): "L'enfant et la représentation de son corps. L'émergence des sentiments", *L'Ecole maternelle* 0, 41-44 orr.

IRTEERAK

(1979): "Una sortida del parvulari", *Perspectiva escolar*, 37, 54-55 orr.

BATZU (1989): "Salida al bosque", *Cuadernos de Pedagogía*, 176, 29-32 orr.

BATZU (1989): "Anem al museu", *Infància*, 46, 28-29 orr.

DIEZ, M.C. (1989): "Viaje al reino de 'Lo Boliñi'", *Cuadernos de Pedagogía*, 166, 28-30 orr.

GAUTHIER, M.T. (1990): "Une classe de découverte au musée", *L'Ecole Maternelle*, 7, 12-16 orr.

IBAÑEZ, C. (1988): "Viajeros al tren!", *Cuadernos de Pedagogía*, 159, 32-34 orr.

SEGURA, C. (1989): "El fondo del mar", *Cuadernos de Pedagogía*, 176, 33-35 orr.

TOURNEIX, F., MARTIN, M. (1989): "Un projet de sortie: une visite a Centre Pompidou", *L'école Maternelle*, 5, 49-50 orr.

VALERO, L. (1990): "La Alhambra", *Infancia*, 1, 26-31 orr.

DOKUMENTUAK

"Ikasgelan daukagun animalia" (Behatzeko kuadroa), *Irakasle Eskola*, Eskoriatza.

"Jai egunetako jolasak", *Irakasle Eskola*, Eskoriatza.

BATZU: "Esperientzi arloa. Ezagupen fisiko eta naturala. Haur-Eskola eta Hasiera Ziklorako ekintzak" (2 ale), *Irakasle Eskola*, Eskoriatza.

Batzu: "Irteerak. Haur-Eskola eta Hasiera Ziklorako" (fitxak). *Irakasle Eskola*, Eskoriatza, 1984.

HALIMI, L.: "¿Podemos hablar de iniciación al espíritu científico en la escuela infantil?", in *Découvrons et expérimentons*, F. Nathan, Paris, 1982.

IRAZABAL, M.E. eta ZABALO, A.: "Ezagupen fisikoa", *Eskoriatza*, 1988.

(Kamii eta Devries: "El conocimiento físico en la educación preescolar" liburuaren irakurketa).

TERRADELLAS, M.R.: "Las salidas en el parvulario y Ciclo Inicial", *Butlletí dels mestres*, Barcelona, 1987 (itzulpena).

WANTELET-DEBACKER: "Suscitar el interés científico y construir las primeras bases de una ética de las ciencias desde la escuela infantil", *Ecole Normale La Louvière*. Belgique. (Itzulpena).

LIBURUAK

ANONIMOA: "La investigación del entorno según el Movimiento de Cooperación Educativa en Italia", Adarra, Bilbo.

Haur-Eskolan "Zientzi-izpiritua" sortzea garrantzitsua bada, liburuxka hau interesgarria izan daiteke behaketa eta ikerketa hurrekin hasiera hasieratik nola landu behar den ikus-teko.

Arlo honetan, oinarrizko kontzeptuak lantzen ditu.

ALFIERI, F.: "Profesión maestro: las bases", *Reforma de la Escuela*, Barcelona, 1984.

Esperientzi arloko aspektu batzuk oso lotuak daude haurren afektibitate eta giza-bizitzarekin.

Liburu honen VI. kapituluak ("Inguruaren ikerketa") bi arlo aztertzen ditu: Norberaren ezagutza eta munduaren hasierako ezagutza. Norberaren ezagutza, hain garrantzitsua izanez, oso gutxitan landu den arloa da.

Italianoz 1976an argitaratutako liburu honek, oraindik, hainbat aportazio eskeintzen ditu: haur txikiakin nola landu oso pertsonalak eta aldi berean kulturalak diren "beldurrak", "heriotza", "gezurak", "gaixotasuna", etab.

CECCARELLI, M. eta FABBRICHESI, L.: "El niño y la ciencia", F.C.E., México, 1985.

Liburu ezezagun eta labur honetan, autoreek kapitulotxo bat eskeintzen diote Haur-eskolako haurari. Ez zaio falta idatzi honi interesik.

Gaiaren zailtasuna aipaatu ondoren autoreek hurbilpen bat egitera ausartzen dira: haurra eta objektuak, haurren beldurrak, jakinmina, galderak, zientifikoki egindako lehenengo behaketak,...

GOLDSCHMIED, E.: "El niño en la guardería", *Reforma de la Escuela*, Barcelona, 1979.

Liburu hau, nahiz eta orokorra izan (Haur-Eskola 0-3 urte), esperientzia arlorako badu aprobetxagarria den materialen bat.

Adibidez: Haurra eta objektuak, jolasa, mani-

pulazioa, sukaldearen funtzioa, ura, hondarra,... haurren beldurrak, jakinminak, irteerak, etab.

Gai hauetan ez du gehiegirik sakontzen, baina irakasle edo gurasoei idea batzuk eman diezaizkioke.

KAMII, C.: "El conocimiento físico: una aplicación de la teoría de Piaget en Preescolar", en Coll, C., *Psicología genética y aprendizajes escolares*, S. XXI, Madrid, 1983.

Fisika ezagutza lantzeko, Piageten teoriaren ikuspegitik, Kamii eskeintzen digun dokumentua oinarritzeko da. Bertan aurki ditzakegu oinarri teorikoak eta hainbat ekintzaren proposamenak bertan aurkitu ditzakegu.

SELMI, L. eta TURRINI, A.: "La escuela infantil a los tres años", MEC-Morata, Madrid, 1988.

SELMI, L. eta TURRINI, A.: "La escuela infantil a los cuatro años", MEC-Morata, Madrid, 1988.

SELMI, L. eta TURRINI, A.: "La escuela infantil a los cinco años", MEC-Morata, Madrid, 1989.

Liburu hauek komentatuak izan dira "Jakin-garriak" aldizkarian (Ikus 13 eta 15. zenbakia).

Beraietan, Haur-Eskolaren planifikazioa hilabeteka banatuta dago eta barnean, Esperientzi-arloa deitzen den sailean integraturik agertzen da.

Hezkuntzak inguruarekiko lotura behar du, eta haurra esperientzia didaktikoan oinarritzeko abiapuntu eta protagonista da.

Printzipio hauek jarraituz, liburuaren autoreek Esperientzia arloa lantzen dute, hainbat exenplu eta ekintza eskeiniz: manipulazioa, behaketa, esperimentazioa, fisika, natura, gizarte ezagutza, ...

ULLRICH, H., KLANTE, D.: "Iniciación tecnológica en el jardín de infantes y en los primeros grados de la escuela primaria", Kapelusz, Buenos Aires, 1982.

Haur-Eskolan, oinarrizko planifikazio bat jarraituz Teknologia oso gutxi landu bada ere, liburu honetan aurkitzen dugu haur txikiarentzat teknologia arloa lantzeko oinarrizko materiala. Autoreek Teknologia arloaren helburu batzuk, hainbat eduki eta ikaskuntza prozesua aurkezten dituzte. Jarraian hainbat gai (makina sinpleak, palankak, tresnak, etab.) garatuak daude: helburuak, landu behar diren kontzeptuak, materialak, metodologia eta ekintza batzuk (beti adinaren orientazioa emanez). Esan dezakegu liburuak interesgarria dela eta orientagarria Teknologia arloaren aurrean.

Ingurune fisiko eta sozialaren aurkikuntza lantzeko hainbat ekintza

Nerea Alzola Maiztegi
Eskoriatzako Irakasle Eskola

Gai monografikoari eginiko sarreran idarokirik dauden Esperientzi arloak planteatzen dituen helburuak lortu nahi badira, umeari ingurunearen ikerkuntzan eta zientziarenganako jarreraren bidea irekitea garrantzitsua badirudi, hezitzaileak egin behar duen lehen gauza zera da: ikasgelako erakuntza eta umeari eta inguruarenganako duen jarrerari buruz bere buruari galdetu.

Bestalde, haurraren mundua konplexua dela kontuan izan behar du, zeren hau eragin fisiko, natural eta soziokulturalez inguratuta baitago.

Gogora ditzagun eskematikoki, mundu ezagutzaren prozesu honetan haurra bideratzeko Haur Eskolak errespetatu beharreko hainbat baldintza:

- Haurren mugimendu eta ekinzekiko errespetua.

- Irakasleak zaindu edo kontrolaturiko jolasen garrantzia.

- Eragingarri edo pizgarrietan aberatsa den ingurune baten beharra. Honek ez du materiale garestia behar denik esan nahi, askotariko materiale arrunt ugari baizik.

- Beraren esperientziak izateko aukera eman eta egin nahi duena hautatuko duen lan autonomua egiteko, momentua eta tokia zehaztea gela planifikapenean.

- Hezitzaileak ez dio, objektu edo egoera ezezagunen aurrean izango

dituen arazoak konpondu behar (ahal den neurrian behintzat). Ez dizkio erantzun guztiak eman behar, gauzei aurre eginez erantzunak bere kabuz bila ditzan lagundu baizik.

- Hezitzaileak ez ditu berak aurrez gauzatu ez dituen esperientziak (fisika edo natura mailakoak batez ere) planteiatu behar, bai ideia berriak atera daitezkeelako eta baita, "hipotesi" ezberdinak egiaztatzearen.

Irakasleak malgua izan behar du eta irekia ustegabeko gertakizunen aurrean; jakin egin behar du baita ere ekintza jakin bat baztertzen haurrak ez badaude interesaturik.

- Kooperazioa eta lankidetasuna funtsezko helburuak dira; dena dela ez da umea beraren esperientzietan kooperatzera derrigortu behar, gelan materiale urria badago batipat.

- Haurraren garapenaz egiten diren ekintzak erlazionatu.

Inguruaren ezagutza, ekintza multzo bat beharrean, funtsezko kontzeptu batzuren lorpen eta jarraia baten garapena bezala planteatzen bada ere, esperientziak eta aktibitateak beharrezkoak dira.

Egin daitezkeen hainbat adibide doazkizue ondoren, irakasleak jakingo du nola planifikatu eta organitzatu erabakirik dituen helburuen lorpenerako.

Hauetako ekintza batzuk, eta adi-

bide gisa, garatuagoak aurkezten ditugu, eskema honi jarraituz

- . Zenbait orientabide irakaslearentzat
- . Posiblea den materiala
- . Ekintzaren deskribapen posiblea

(Ikus Bibliografia: Alzola, N., Garmendia, B., Unamuno, A.: "Esperientzi arloa. Haur-eskola eta Hasiera Ziklorako Ekintzak", Irakasle Eskola, Eskoriatza, 1986-1987).

FISIKA EZAGUTZA

A. Gauzak desplazatzea

Espazioaren egituratze eta logika, matematika eta fisika ezagutzetarako egoki eta baliagarria den gai hau da, Kamii-k (1983-1985) gehien aztertu zuena.

Hona hemen egin daitezkeen aktibitate batzuk: bultza egin, baloia jo, salto egin, putz egin, zerbait jaurti, kulunkatu, hari batez zerbait tatarrez eraman etab...

B. Gauzei berezitasunak aldatzea

Ariketa hauek behaketa eta esperimentazio lana eskatzen dute zerbaiti berezitasunen bat aldatzean: kolorea, tamaina, zaporea, esaterako.

– Sukalde ekintzak

Sukaldeak eta bertan jaten denak, erakarri egiten ditu haurrak. Sukalde txokoa egokia da elkarrizketarako, elkar-bizitza ikasteko, fisika eta matematikako zenbait arau jasotzeko eta, batez ere denok, bat eginik, talde osoarentzako zerbait egiteko.

Errezetek errezak izan behar dute, prestakuntza harriskutsuengandik urrun; gainera haurrek irakur ahal ditzaten, kodifikatu egin daitezke.

– Elementu batzuei berezkotasunak aldatzen

*Urakez du zaporerik baina eman dakioko.

Bi edalontzikada ur, gatza eta azukrea ditugu. Edalontzi horietako batetan azukrea bota eta ezberdintasunak ikusiko ditugu: zein gozotasun duen ikusi, beste haurrenarekin azukreari eta urari dagokionez erkatu etab.

*Koloreztatu egin nahi dugu (uraren osagaien egoera alda daiteke).

Ontzi garden bat, ura eta margo hautsa ditugu: margoa ontzian bota eta ura ixutuko dugu. Han!, solidua isurki bihurtu da (isurkien kontzentrazioaz jolas egin dezakegu...)

*Elurra egitea, orokorrean, pozgarria izaten da umeentzat. Zer gertatzen zaio hozberoak igotzen duenean? Urte egiten da. Kalera atera eta elurra zapaldu egin dugu, zer jaso da? Zer gertatu zaio eta zergatik?

*Izotza: Urak, izoztean, hedatu eta toki gehiago behar izaten du. Egun hotz batez botella bat urez bete, ondo itxi eta kanpoan, plastikozko poltsa batetan uzten badugu, goizean hautsita aurkituko dugu, zergatik? (nahi izanez gero beste bat gelan bertan utzi).

D. Objektuen berezitasunak

Hemen adieraziko ditugun ariketek, objektu edo elementu batzuren erreakzioak adieraziko dizkigute, beraien berezitasunen eta jasan arazten zaien egoeren arabera.

– Imanak

Zer erakar dezake imanak?

Altzairuzko eta burnizko gauzak erakartzen ditu. Haurrari imanaz esperimentatzeko aukera emango diegu, horrela zer erakartzen duen eta zer ez ikus ahal izango du objektuak klasifika ditzakeelarik.

Jar ditzagun horratz batzu mahai

gainean eta utzi haurrek imanez jolas dezaten; ea horratz-kate bat egitea lortzen duten imanaren indarraz elkarri itsatsiaz.

– Solidua eta isurkia

Ur txokoa: Ur-ontzi handi bat erabil daiteke eta haurrei plastikozko amantal handi bana eman.

Materiala: Tamaina, era eta materiale ezberdinetako ontziak, botilak, poteak, jeringilak, tantakontagailuak, enbutua... (adinaren arabera).

Haurren ekintzak: Ontzi batez beste bat bete, uretan putz egin enbututik ura pasa, tantakontagailuaz ura hartu etab.

– Solidu eta isurkien bila

Nola sailkatu pentsatuko dugu. Solidu den guztia ezin dugu jan, ezta isurki den oro edan ere. Isurkia = ixurtzen dena/Solidua = ixurtzen ez dena.

– Objektuekin jolasak


*Haurren batek edo irakasleak buruan duen objektua asmatzen: Mahai gainean hainbat objektu eza-gun ditugu. Haur batek buruan hartuko du bat eta irakasleari esan. Besteek zein den asmatu behar dute beraren tamaina, berezitasun eta abarrei buruz galderak eginez; haurrak bai edo ez erantzungo die.

*Ahalik eta berezitasun gehien aipatzen.

Haur batek objektu bat aukeratu eta taldean aurkeztuko du. Besteek berezitasunak aipatu beharko dituzte, ahalik eta gehien biltzean datza jokua. Propietate gehiago azaltzen ez denean amaitzen da jolasa.

– Materia zertan den

*Sailkapen ariketak (lehengai batez edo biz osatutako objektuak). Zurezko, plastikozko, metalezko ... edo zurezko eta plastikozkoak diren gauzak bilatzeko eskatuko diegu



San Andres Eskola

haurrei (taldeka egin daiteke).

**Iragazkortasuna / Iragazkaiztasuna*

Orientabideak: Objeto batzuk euriarengandik babesten gaituzte eta beste batzuk ez.

Inguruaz jabetuz (putzuak, ur-jantziak,...) eta zenbait material erabiliz aterkiak egiten ahaleginduko gara.

Materiala: Balio ez duen materiala, zenbait paper zati, oihala, plastikoak, egurrezko makilatxoak, artilea, ...

Deskribapena: Inguruak obserbatu ondoren, umeek, euriarengandik babesteko baliozko zerbait egiten ahaleginduko dira daukaten materiala erabiliz. Zenbait babesleku egitea erraza izan daiteke baina ez aterkiak egitea. Kartoi gogorrezko borobilak moztea eta kono lauak lortzeraino grabatzea proposatzen zaie umeei. Aterki hauek benetakoak bezala apain ditzakegu (marrak, loren bidez, ...). Girtena, kortxoak borobil batetan sartuta eta erantsita egongo den makilatxo baten bidez lor dezakegu.

E. Beste aktibitate batzu

– Flotatu edo hondoratu

Ontzikada bat ur eta hainbat elementu ezberdin hartuko ditugu: klarriona, txintxetak, plastilina zatiak, pospoloak, esponjak, lumak, kortxoak, harriak, arropa zintzilikatzeko pintzak, plastikozko goilaretxoak, txanponak etab.

Haurrek, untzietan jolastuz, beraien "hipotesiak" botako dituzte eta objektuak sailkatzeko kode bat aukeratu.

Gainera, objektu ezberdinei uretan gertatzen zaiena behatu eta adieraz dezakete (pospoloak esaterako, behin eta berriz aterako dira ur gainera, beste hainbatetan hondoratzen saiatzen bagara ere).



Durangoko Kurutziaga Ikastola

– Puxika, jauzkari, lupa, ispilu, itzal eta abarrekin esperientziak.

NORBERAREN EZAGUTZA

Giza-gorputzaren gaia amaigabea da, eta beti oinarrizko materiala izango duzunaren abantaila du. Bistan denez, arlo guztiak biltzen dituen gaia da: afektibitatea, higikortasuna, biologia eta gizartea.

Hazkuntza

Argazkiak garrantzitsuak dira oso, umeak bere historia osa dezan. Umeek, orokorki, arazoak izaten dituzte argazki zaharretan beraien burua ezagutzeko; honegatik, hirugarren pertsona erabiliko dute irudikoa aipatzerakoan.

Haur horren izena edo berarekin dagoen anderea nor den galdetzerakoan, ordez, lehenengo pertsona erabiltzen hasiko da ("nire amona da").

Berauen argazkiak ekar ditzaten eskatuko diegu gurasoei: haurtxotakoak, oinez edo ikastolan hasi zire-

nekoak etab. Ume bakoitza, argazkiak ordenatuz, beraren historia moldatzen saiatuko da (froga asko egingo ditu seguraski, kronologikoki beharrez kolore bizidunen eta koetatik has daitezke eta). Dударik gabe, sailkapen mota ezberdin asko aurkituko ditugu (arropen, jostailuen... araberakoak). Bakoitzak bere bizitza erreparatu eta, ahal izanez gero, kontatu egingo du.

Txikien aipamenek hazkuntza prozesu jarrai bezala ulertzen ez dutela adierazten digite.

Esku jolasak

Honen helburua eskuek eskeintzen dizkiguten aukerak bilatzean datza. Untxi edo txori bihur ditzaket eta hatzamar potoloaz belarriari hazka egin diezaioket...

Nire eskuez jolas dezaket

Eskuak dituen posibilitate guztiak jakinaraztea helburu garrantzitsua da. Umea honako honetaz jabetu dela:

.askotan erabiltzen den tresna da .informazioa lortzeko medio ona dela (ikumena, hotza eta beroen sentsazioa...)

inguruan edo espazioan mugitzeko behar dugun tresna garrantzitsua dela

komunikazio bidea dela (eskua-
ren erabilerak hizkuntzaren asmoak azpimarratzen ditu eta askotan hitza bera baino garrantzitsuago da)

Nire eskuekin jolasten dut:

Eskuak 5 hatzamar dauzka: barka erabil daitezke?

Bostek dute arintasun berdina?

- Bidea erakusten dut: Umeek hatz erakuslea luzatuko dute eta besteak gordeta utziko dituzte.

Ariketa hau beste edozein hatzekin egiten ahalegintzen bagara, zailagoa egingo zaigu.

- Untxiarena egiten dut: Hartzen puntak elkar ikutzen daude pintza baten antzera. Erakuslea eta erdiko hatzak jasotzen dira eta bi hauek elkartzten eta banatzen saiatu.

- Hatz lodia besteengandik urruntzen dut, nire hatz lodia izkutatzen dut, nire hatz lodiaz belarria arraskatzen dut.

Elurra hotza da

Elurra egin du eta jolaslekura atera gaitezke jolastera (elur-pelotaka, panpin bat egitera, labankadaka...). Esku-hankak hoztu egin zaizkigu eta min ematen digute. Zer egin berotzeko?

Haurrak konponbideak aurkitzen saiatuko dira: lasterka, saltoka hasi, eskuak puztu, hankak astindu, eskuak beroki barruan gorde etab.

Haurren barneko alderdi pertsonalenekin aktibitateak: beldurra, goibeltasuna, osasuna, etab.

Gehiegi lantzen ez diren gaiak direla uste dugu, nahiz eta eguneroko bizitzan agerian diren. (Ikus bibliografia).

NATURA EZAGUTZA

A. Animaliak hazi edo ingurugiroan behatu

Ekintza hauetan, bizitza kontzeptua garatzea interesatzen zaigu, elikadura, hondakinen iraizketa, ugalketa, inguratzen dituen munduarekiko erreakzioa, desplazamendua, heriotza eta horrelakoei buruzko galderen bidez. Galderek ez dute artifizialak izan behar, umeen behaketak berak eraginak baizik.

Irakasleak ikasgelan animaliarik izaterik nahi ez balu, noizbehinka abereren bat bertara ekarriaz edo borda, zoologiko ala animalia heritxeren batera irteerak eginez, oso esperientzia errazak molda daitezke.

Dortoka bizirik dago? (adibidea)

Orientabideak: Lo egiteko ala arriskutik babesteko, dortoka oskol barruan izkuta daiteke. Dortokaren kontxak eskola dauka izena.

Bere sabelak, beste kontxa bat, plastron du izena.

Hortzak eduki beharrean, dortokak hortzadun ertzak dauzkate bere

ahoaan. Beren gorputzaren tenperatura ia ezin dute menperatu; ikumen ona daukate, hurbileko ikusmen ona, usaimen ona, entzumen txarra eta adimen urria.

Zenbait dortokak ehun urte irauten dute.

Materiala: Dortoka bat edo gehiago

Deskribapena: Dortoka obserbatu. Bere oskol barruan sartzen denean galdetu: bizirik dago? oskola ikutzen badiogu atera eta ibiltzen hasiko da? Berak nahi duenean irten arte itxaron daiteke. Janaria eskaini diezaiokegu edo kolpetxo batzu eman.

B. Landareak

Gelan izan, zaindu eta behatu daitezken barne landare apaingarriez gain, badira moeta batzuk, gutxieneko baldintza mesedegarriak izaki, urteko edozein garaitan erne daitezkeenak; hala nola, azenarioa, perrexila, babarruna etab.

Behaketa konplexuago bat lortzeko, interesgarria gerta liteke era desberdinetara erne araztea.



GIZARTE ETA KULTURA EZAGUTZA

Goiko hauek dira, gorputzarena-ekin batera, eskoletan gehien erabiltzen diren gaiak praktika mailan: familia, etxea, erabiltzen ditugun gauzak, norekin jolasten dugun, lanbideak, kalea etab...

Gai hauek agortezinak dira eta bata besteaz erlaziona ditzakegu, aspektu zehatzetan sakontzeko aukera ematen digutelarik, esate baterako:

Ume baten amak haurtxo bat izan du: honek eskaintzen dizkigun aldagaiak makina bat dira. Esaterako:

Erka ditzagun guraso, ume eta haurtxoen egunbeteak. Horrela, eguna antolatzearen kontzientzia har dezaten nahi dugu, erreferentzi puntuak bilatzea, konparaketak egitea etab...

Lanbideak, kalea edo erabiltzen ditugun gauzak gaiatzat harturik, aktibitate interesgarriak asma daitezke. Adibidez, umeek daramatzaten jantziez eta kalean ikusi dugun dena nolakoa den kontuan hartuta, arropadenda bat eraiki dezakegu.

Festak

Garrantzizko baliabideak dira festak hurrek kultura ezagutu dezaten.

Eskoletan bi eratako jaiak ospa daitezkeela esan dezakegu:

- Eskolan bertan ospatzen direnak, hurrengan sumatzen duenaren edo eguneroko gertakizunen arabera irakasleak "asmatutakoak". Barne gertakariren bat izan daiteke (ume baten urtemuga, norbaiten amonak atzerrira egin duen bidai...) edo talde osoak bizi duen kanpo gertakizunen bat (urteko lehen elurtea...).

- Herriko jaiak dira beste aukera bat; orokorki, herrietako kulturaren urtetako tradizioa izaten dute eta

orain bildu eta eskolara moldatu dira: ihauteriak, gabonak, udaran sartzea etab..., herri eta kultura bakoitzeko festa eta ohiturak ahaztu gabe.

Hauetako jai bakoitza, zertu beharreko zenbait erritoz, kontuan izateko hainbat osagai kultural eta naturalez, abesti, dantza, esaera zaharrez osatzen da. Haur eskolan umeak festa horren zentzua eta jatorria ulertzeak ez gaitu kezkatzen, ez bait da, esaterako, haratusteen jatorria ulertzeko gai. Komeni dena zera da: jaiak bizi ditzala, osagai guztiak esperimintatu, abesti, tradizio eta zeinu batzurekin ohitu dadila, beregana ditzala...

Horrez gain, badakigu, zein zaila den ume txikiarentzat, beldurtu gabe, mozorroak ageri diren jai bat bizitzea, gozatzea. Hauetariko elementuak behar bezala aurkezteaz arduratu behar da hezitzailea.

Aipaturiko edozein jaitan, garrantzitsua da umeek festan parte hartzea, bai prestakuntzan eta baita ospakizunean ere, horrela gertakizun hori bereagotu egingo bait dute: ikasgela apainduz, mozorroa prestatuz etab. Dena egin eskaintzen badiogu, jai horren balio handi bat galdu egingo dugu.

IRTEERAK

Irteerak ingurunearen ezagupenerako funtsezko ekintza eta baliabideak dira; bai abiapuntu, motibagarri edo baita edozein ikerkuntzen garapenean garrantzitsu diren aldeetik.


Bi eratakoak bereiz ditzakegu: Bapateko ateraldia (udaberria da, gelan bero dago, arnasa hartzera ateratzen gara, umeek jolas egiten dute), eta antolatutako irteera: ikas-torduetakoa edo bizpahiru egunetako ateraldi luzea.

Antolaturiko irteerak, onuragari gerta daitezten, garrantzizko de-

ritzogu hurrengo baldintzok kontuan edukitzea: (a) helburuak ongi zehaztea; (b) lantzea nahi den/diren ezagupen mota/k; (d) irteera umeekin gelan prestatzea; (e) ateraldia antolatzea: irakasleak garbi izan behar du nora eta zein baldintzatan doan. Horretarako, datozen datuok jaso behar ditu:

- helbidea
- bertako erantzunkizuna duenaren datuak;
- ordutegia
- haur kopurua
- bertako araudia (adina etab.)
- zer eta nola ikus daitekeen;
- ikustaldi garaia;
- eramatea komeni den materiala (bloka, grabagailua, plastikozko poltsak etab...)

(f) bueltatzerakoan gelan aztertzea.



Durangoko Kurutziaga Ikastola

INGURUNEAREN

PROBETXAMENDU

KURRIKULARRA

Izaskun Madariaga
Iturburu Udal Haur-Eskola
Oiartzun

Hiru urtetik beherako umeak hezkuntza integrala izateko ingurunearen probetxamenduan oinarritutako esperientzia bat (kalea, auzoa...)

ITURBURU, Oiartzungo Udal Haur-eskola da. Karrika auzoan dago kokaturik, nekazal auzo batean alegia, eta populazioa, funtsean, baserrietan banaturik dago.

Eraikina, bere garaian eskola unitarioa izandako eta kontzentrazio politikarengatik itxitako etxe zahar bat da. Haur eskola izateko moldatua dagoen bi solairu eta ganbaradun eraikin hau, auzorako sarbidearen ertzean dago eta ez du berea den kanpokaldeko espaziorik.

Kanpokaldeko espaziorik ez izateak poliki poliki falta hori konpentsatzeko modua auzoan bilatu eta aurkitzera eramán gintuen.

Hasiera batean izandako zailtasunik handienak ume txikienek sortzen zituzten, ibiltzen ez zekitenek edo gutxi ibiltzen zirenek alegia, eta, irtenbide gisa, hipermerkatuetako gurditxoetan elkarrekin garraiatzeko posibilitatea bururatu zitzaigun. Izugarriko aurkikuntza izan zen; izan ere, haur txikienei nahi beste baliabide eskaintzeko aukera ematen bait zigun, besteak beste: jolaslekuak aldatu; belarretan, harri artean edo hareetan jolastera eramán; aldapan, lauan, belarretan... katuka ibili. Era berean, beranduxeago, baliabide guzti hauek baliagarri gertatu

zitzazkigun ibiltzeko trebetasuna eta gorputzaren oreka finkatzeko etabar.

Guzti honetaz gain, normala denez, ingurunearen ezagutza ematen zieten esperientzia ezberdinak izaten zituzten, eguneroko bizipenek ematen duten erako ezagutza sendo eta esanguratsua jasotzen zutelarik. Gurdiak gertuko baserrietara joatea ahalbidetzen zigun, eta, beraz, animalia ezberdinak ezagutzeko aukera ere bai: txakurrak, untxiak, oiloak, behiak, ardiak, katuak,...; halaber, inguruko jendearekin ohitu egiten ziren.

Hazi egiten ziren heinean, ikusten genuen, gauzekiko interes handiagoa izan eta ezagututako gauza bakoitzetik zer, zertarako eta zenbat nahi zuten erabakitzeke beren autonomia berria erabiltzeaz gain, nekearentzako erresistentzia eta taldean ibiltzeko eta seguritateari buruzko oinarritzko arauak ulertzeko gaitasuna etabar, sendotu egin zitzaizkela. Heldutasun honek, aldi berean, ingurunearen erabileran aukera berriak eskaintzen zizkigun, hala nola, motriz-trebetasunerako, zentzumenen garpenerako... erreka moduko bitartikoez baliatzea. Halaber, espazioan zabaltzeari buruzko helburu handiguragoak markatzea ahalbidetzen zigun, esaterako, gauza berrien bila auzoko beste lekune urrunagoetara heltzea.

Eta horrela izan zen. Izan ere, egiaztatu ahal izan bait genuen, irteera hauen bitartez, hobetu zitekeela haurraren garapen osoa, era global eta kontestualizatu batean. Inguruneak berak, era naturalean, ahalbidetzen zizkien esperientzien bitartez, haurrak zentzumenen eta psikomotrizitatearen garapen izugarri aberatsa izateaz gain, mintzaira eta komunikazioa garatzen zuen, errealitatean eta haurraren sendo sustraituriko gauzetan oinarritzen bait zen. Halaber, harreman sozialak, talde zentzua eta beste pertsonetikiko komunikazioa eta besteen gauzekiko errespetua lantzen ziren. Ohitura batzuk hartzeko aukera ere ematen zuten: portaera ohiturak, arriskuaren zentzua, kotxeen aurrean erretiratzea... Hunkipenezko hainbat espresioak ere bidea zabalik zuten, hala nola: poza, betetasuna, ausardia, segurtasun eza, beldurra, arrenkura espresioak. Kalean aurki daitekeen hainbat gauza aurkitu eta esperimentatzeko trebetasunaren garapen kognitiboa ahalbidetzen zuten: animalia mota guztiak, loreak, fruituak, naturaren legeen egoera ezberdinak... Espazio eta denbora nozioak bizi, kontzeptuen eta sailkapenen munduan sartu, eta hainbat gauzatara aukera ematen zuten.

Hirugarren urtean, dagoeneko, beste aurrera pausu bat ematea erabaki genuen. Adin honetako haurrak ingurunearen aberastasuna sendo bizi izan duenez, pentsatu genuen komeni zela ezagunak ez ziren gauzak ezagutzea, esaterako, antolamendu sozialaren esparruan sartzea, nekazal mundutik hirira pasatzea alegia.


Hirugarren urtean, dagoeneko, beste aurrera pausu bat ematea erabaki genuen. Adin honetako haurrak ingurunearen aberastasuna sendo bizi izan duenez, pentsatu genuen komeni zela ezagunak ez ziren gauzak ezagutzea, esaterako, antolamendu sozialaren esparruan sartzea, nekazal mundutik hirira pasatzea alegia.

Horrela bada, herria orokorrean ezagutzen hasi ginen, beste auzo batzutara irteerak planteatuz, eta baita gure abiatze puntuaren arauera kokapenez jabetzen ere.

Ume bakoitza bizi zen lekua ezagutu eta hurrengo ikasturtean beren eskola izango zen ikastetxea

bisitatzeaz gain, hainbat gauza gehiago egin genitzakeen: jakiak saltzen zizkiguten dendatara joan (harategira, arraindegira, fruitategira...), garraiobide kolektiboetan ibili (autobusean, trenean...), aireportua eta portua bisitatu, auzokoak ez bezelako beste animalia batzuk ezagutu (akuarium-ekoak, parkekoak...).

Guzti hau ikusirik, gure eguneroko irteerak, ikasgelan egindako iharduerarik onenak baino baltore didaktiko handiagoa zutela eta, derrigorrez sartu behar genituela gure proiektu hezitzailean pentsatu genuen, Kurrikulum forma eman behar geniela alegia. Horrela, haur txikien beharrei erantzunez, aurrera eramane zitekeen mailaz mailako lan-plan bat prestatu zen, hau da, plan bat talde eta ikasturte bakoitzeko.



HELBURU OROKORRAK

– Haurren formakuntzari, naturarekin harreman estuan hasiera eman, duen dimentsio osoan natura aurkitu eta bizi eginez.

– Giro natural, kontestualizatu eta integratzaile batean ezagutza jaso, bakoitzari garapena bere interesetatik eta heldutasun mailatik abiatuz ahalbidetuko zaiolarik.

– Mailaz mailako ezagutza ahalbidetzea zaio, gertuko gauzetatik orokorrera, baina tokia eta umea erreferentzia puntuak ahaztu gabe.

– Esperientziak aberaztea era aurrerakor batean, bai kantitatean bai ezberdintasunean.

LAN-PLAN MAILAKATUA

Haurtxoak. Desplazatzeko autonomiarik gabe-koak.

Osasunarekin eta aisiarekin zerikusirik duten helburuak: airea hartu, paseatu, hamaketan egonaldi lasaiak egin...

Katukariak. Taldean garraiatzeko ahalbidea (gurdien erabilera).

Aurreko helburuei, zentzumenen garapenarekin, desplazamenduarekin eta mintzairarekin loturik daudenak eransten zaizkie:

– Benetako gauzen bitartez zentzumenak esperimentatu: ukitu, miazkatu, entzun, ikusi...

– Motriz-iharduerarako (katuka eta ibiltzeko trebetasuna) aukera eman belarra, harria, aldapa, laua...gisako baliabide ezberdinetan.

– Oinarrizko mintzaira-iharduerak: soinuak, onomatopeiak (esaterako, animalia ezberdinen aurrean) egin gauzak ezagutzerakoan, etabar.

ERTAINAK. Desplazatzeko autonomia dutenak.

Helburuak, besteak beste, honako hauekin zerikusia dutenak dira: motrizitatea finkatzearekin, hurbileko ingurunea aurkitu eta dituen ezaugarri eta propietateak identifikatzearekin, harreman sozialei hasiera ematearekin, hiri-portaerari buruzko ohitura eta araei sarrera ematearekin, eta mintzaira,

inteligentzia, simbolismo eta kontzeptualizazioaren garapenarekin.

– Handienak. Esperientziak zabaldu, auzotik ir-tenda.

Identitatearekin, autonomia pertsonalarekin eta harreman sozialen garapenarekin loturik dauden helburuak.

Iharduerarekiko planifikazioetan, erabakietan eta ekimenetan haurrak inplikatu; autonomia pertsonala izan, baina taldea alde batera utzi gabe.

Auzoa fisikoki ezagutu: bideak, baserriak eta-bar. Bertan orientatzen ikasi. Kotxeak pasatzean atzera egiten ikasi. Aurrez jarritako helburuekin ibilaldiak egin.

Gertuko ingurunetik kanpoko beste errealitate batzutura zabaldu.

Esperientziak eta aurkikuntzak komunikatzeko eta gogoratzeko mintzaira erabili, erlazio sozialak izateko bitarteko modura alegia.

ATERA DITUGUN KONKLUSIOAK

1) Adin honetako haurrari, eskolak bizitzeko modu bat aurkeztu behar dio, eta, garapenaren kalitatean oinarrituta, gauza errealekin ahalik eta esperientzia gehien izatea ahalbidetu. Beraz, ume guz-tientzat garrantzitsua bada naturarekin harremanak izatea, ume txikientzat ezinbestekoa da.

2) Haurrak inguru sozialean sartzea garrantzi handikoa da. Horretarako, beharrezkoa da inguru hau berak manipulatu ahal izatea, bai hirigintzaren ikuspegitik bai antolamendu sozialaren ikuspegitik: orientatu ahal izan dadila, auzokoak ezagutu ahal ditzala, dendetara joaten jakin dezala etabar.

3) Haur-hezkuntz zentruak eraikitzea pentsatzean baliabide naturalak ezinbestekotzat hartu beharko liriateke hezkuntza bideratzeko. Seguritateagatik itxiturak kontutan hartzen diren bezalaxe, ahalik eta bitarteko gehien izatea ere kontutan hartu behar da: zuhaitzak, landareak, loreak, animaliak, belarra, harea, ura, bideak, aldapak, zubiak..., gauza errealekin esperimendatzeko eta ahalik eta modu integratzaile eta kontestualizatuenean hezi ahal izateko umea.

TRADIZIOZKO JAIEN OSPAKIZUNA

Udal Eskolaurrea. Aretxabaleta

Ingurunearen ezagutza arloan, haurrak bizi duen errealitatea ezagutzea, ulertzea eta berarekiko jakinmina sortzea helburutzat hartuz gero. Haur-Eskolak ematen digu zenbait aukera haurra ereikiten ari den ezagutza maila aberasteko. Bat aipatzearen ekintza programatuak eskeintzen dutena esango genuke eduki konkretu batzuk lortzeko.

Haurra inguratzen duen errealitatean murgildu nahi badugu, hasiera hasieratik partaide eta protagonista bihurtu beharra dago (programatutako ekintzetan). Horregaitik guk eskolan ospatzen ditugun tradiziozko jaiak Herrian ere ikusteko eta parte hartzeko ere aukera ematen dutenak dira.

ZERGAITIK OSPATZEN DITUGUN

Eskola eta inguru soziala lotu beharra ikusten dugulako eta saiatzen garelako.

Gure Eskolako haurren jatorria kontutan hartuz gero bi talde ditugu: erdeldunen seme-alabak

eta euskaldunenak. Lehendabizikoek ez dituzte bizitzen ez eta entzuten honelako egoerak euren familietan eta herri mailan antolatzen diren ekintzetan ere parte hartzen badute jarrera pasibo batez egiten dute (ikusleak dira).

Guk INTEGRAZIOA eskola mailan helburutzat hartzerakoan eta garatzerakoan, gune ezin hobe ikusten dugu inguruko tradizioak eskolan bertan programatu eta euskaldun eta "elebidunekin" batera ezagutu eta parte hartuz ospatzea, beraien kultur balioa azpimarratuz.

Guzti honen euskarri: ekintza konkretuak programatzeak, pentsatzen dugu, haur hauei beraien inguruan partaide izaten lagunduko diela.

ANTOLAKETA

Ospakizun hauek ohizko plangintza apurtzen dute, bai ikasleentzako eta bai irakasleentzako, bukaeran hasierako egoera lasaia lortzen dugularik.

Programa egiterakoan hauek dira ematen ditugun pausoak:

1.-Giroitze lana eta prestaketa

Giroitze lana jaia baino 15 egun lehenago hasten dugu. Bertan motibazio lana egiten da, datorren eta ospatuko dugun jaia eta eguna aipatuz, egutegian falta diren egunak zenbatuz... Programatzen dira ipuina, edo olerkiak, eta gaiaren arabera edukiak eta hiztegia, beti jaia eta ospaketa azken xedetzat hartuz. Adibidez GAZTAINERRE egunerako, hainbat eskulan eta ormirudi egiten dira, egur bila irteerak...

2.-Ospaketa

Jaia ospatzerakoan saiatzen gara denok parte hartzen eta ahal den neurrian haurra izan dadila protagonista. Jaia eskolan bizitzen da baina kasu gehienetan badu herriarekiko proiektiorik: haurrak kalera irten kantatzera, desfilatzerara edo gaztainak banatzerara...

3.-Balorazioa eta gogoratzea

Jai eguna eta ospaketa baloratzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu: nola gertatu den, nola parte hartu dugun, zer egin zuen bakoi-

tzak, nor ez zen etorri eta zergaitik, falta zenari kontatu...

Hurrengo urtean nola egin dezakegun pentsatu eta ordurako erreferentzia bezala erabili, ihaz nola egin genuen gogoratuz.

GAZTAINAK ERRE ospatzen dugun jaien inguruan egin ditugun programaketen adibide bezala jarraian azalduko dugu jai honen programazioa.

Udazkena gaiaren inguruan zentratzen da, honen adierazpen bezela hartuz. Aintzina gaztainak erretzeko erabiltzen zuten tresnaren (sartena) ezaguera eta suaren inguruan sortzen den giroa bizitzea da helburua.

Ekintza berdintsuak egiten dira adin bakoitzeko gaitasunaren arabera.

Fruituen behaketa gela guztietan egiten da, eta eskulanak adibidez zailagotzen joaten dira:

- 3 urtekin gaztainak margotu
- 4 urtekin gaztainak moztu eta muralean jarri
- 5 urtekin, murala osatu, sailkapenak egin, tenperaz margotu...

GAZTAINAK ERRE

Azken ekintza

- Gaztain erreen jaia ospatzea

Pausuak

- Ekintza aurkeztu haurrei:
 - Bukaeran egingo duguna
 - Ospakizuna baino lehen presatu behar ditugun gauzak

- Inguru naturala behatu
- Jasotako objetuekin esperimenduak eta ekintza ezberdinak burutu
- Ospakizuna

Esperientzia arloko helburuak

- Udazkenean naturan ematen diren berezitasunez jabetzea:
 - Udazkenean ematen diren fruituez jabetu (gaztainak, intxaurrak, urrak...)

...

- Inguru naturala ezagutzeko gogoia bultzatzea
- Ikusten ditugun gauzen artean dauden berdintasunak eta ezberdintasunez jabetzea
 - Fruitu siku urtsuekin konparatzeko eta bereizteko gaitu
- Sua ezagutu
 - Sua nola egiten den ikusi eta parte hartu prestaketan
 - Sua zerez egiten den ikusi
 - Sua ematen duen berotasunaz ohartarazi
 - Gaztain gordinak gaztain erreak suak bihurtzen dituen ohartaraztea
- Ezagutzen dituzten gauza berriak ezagutzen dituzten gauze-kin erlazionatzeko gai izatea.

Hizkuntza arloko helburuak eta edukiak

- Inguruan ikusi dituzten adierazteko gai izatea
- Edukiak
- . Zuhaitz motak
 - . Zuhaitzen atalak
- ...
- Zentzumenean bidez jasotako informazioak azaltzeko gai izatea.

Edukiak

* Nolakoak diren:

- . gozoak — garratzak
- . sikuak — urtsuak
- . gogorra — biguna

* Zer diren:

- . gaztainak
- . urrak
- . intxaurrak
- . almendrak
- . laranja
- . makatza
- . mahatsa
- . sagarra

* Zer egin dugu

- . zuritu
- . zatitu

* Gustatzen

- zait — ez zait gustatzen
- zaizu — ez zaizu gustatzen

* Konparatiboak — ago

- Inguruan ikusi dituzten gauzak aurretik ikusitakoarekin dauden ezberdintasunak adierazteko gai izatea.

Edukiak

* Denbora erlazioak: lehen (udan) ... zegoen

* Nolakotasuna: berde — siku

- Suaren inguruan behatu dituzten gauzak adierazteko gai izatea

Edukiak

Hiztegia:

Egurra, poxpoloa

Nolakotasuna adierazteko hitzak:

bero, erre, hotz, gordik, erreta

- Ospakizunean bizi, ikusi ... gauzak adierazteko gai izan.

OSPATZEN DITUGUN BESTE JAIK

OLENTZERO OSPAKETA

Abenduaren 24an, goizez, baserriar jantzita ateratzen gara kalez kale Gabon kantak abesten.

Lehen kalez kale eta baserri baserri haurrek kantatzen ibiltzeko zegoen ohituraren adierazpen bezela hartzen dugu.

Gabon inguruan egiten diren ariketen eta ekintzen eginkizuna daukagu helburutzat.

Egiten diren ekintzak:
Gela eskulanez apaindu
Etxera eramateko opariak pres-
tatu
Olentzeroren ipuina adierazi
Kantak...

SAN BLAS

Herriko ohitura da, aspaldidanik, San Blasera joatea janariak bedeinkatzera. Goizean ibilaldira bat egiten da eta igo ondoren bertan eseri eta eramandako gauzak jan egiten dira.

SANTA AGEDA

Jai honen girotze ariketa bezala, aurrez bi abestiak ikasten ditugu (Aretxabaletakoa eta Euskal Herri mailan gehien abesten dena), eta Santa Ageda egunean goizez kalez kale ateratzen gara abestera.

Aretxabaletan oso tradizionala da Santa Ageda batzea (Santa-

geda mutilek egiten dutena), eta eskolan haurrekin gauza berdintsua egiten dugu goizez, eta arratsaldez gurasoak prestaturiko txokolatada batekin bukatzen dugu jai.

HAURREN ASTEA

Kurtso bukaera aldera, Haurren Astea deitzen diogun aste bat ekintza bereziz betetzen dugu. Era desberdinetako ekintzak egiten dira: jolasak, gaztelu puzgarria, pelikulak,... eta, aipagarrienak, ogia egitea eta eskulanez erakusketa.

Ogia gelan egiten da goizez, eta haur bakoitzak bere etxera zati bat eramaten du labean erretzeko. Arratsaldean txokolatea eta ogia jatera irteera bat egiten dugu.

Hain arrunta den janaria nola egiten den eta ze osagai dituen haurrei adieraztea da ekintza honen helburua.

Aurrez egiten ditugun ekintzak:
– Okindegi bat ikustera joan

- Osagaiak etxetik ekarri (irina...)
- Ogi desberdinak dastatu: moldekoa, baserrikoa, ogi beltza...

Erakusketa. Urtean zehar ikasitako teknikak erabiliz egiten ditugu lan berezi batzuk, guraso eta anai arrebek ikusiko duten espozizio ireki bat antolatzeko.

Nagusiak haien lanak ikustera etortzea oso motibagarria izaten da eta protagonismo handia ematen die haurrei, eta honez aparte eskolan egiten diren lanen ikuspegi orokorrago bat izan dezakete gurasoek, eta ez bereziki euren haurrena.

IHAUTERIAK

Herri askotan ospatzen den jai hau guk ere mozturorik ospatzen dugu. Herrian bereziki "Txino Dantzaren" inguruan egiten da jai hau. Eskolan ere abesti hau ikasiz eta Karnabal erako eskulanak eginez (antifazak, karetak...) ospatzen da.



Udal Eskolaurrea

ESPERIENTZIA ARLOA H2REN IRAKASKUNTZAN

Mariam Bilbatua
Eskoriatzako Irakasle Eskola

Esperientzia arloaren bidez h2 lantzeko jarrian azalduko den proposamenak, irakaskuntza elebidunean hizkuntzari ematen zaion tratamendua berritzeko aportazio bat izan nahi du, kontuan izanik arlo honan edukiak h2an erakusten direla.

Proposamen honekin hizkuntzaren inguruko lan sistematikoa erabilera errealean oinarritu nahi dugu. Zentzu honetan kritikatzeko dugu bai gramatika oinarritutako funtzionalitate gabeko hizkuntzaren irakaskuntza eta baita erabilera espontaneoan oinarritzen dena ere.

Programaketak diseinatzerakoan didaktika orokorrari eta hizkuntzaren didaktikari dagozkion zenbait printzipio hartu ditugu oinarri bezala. Jarraian laburtuko ditugu geroago azalduko dugun programazioa kokatzeko garrantzitsuenak:

- Esperientzia arloko irakaskuntza ezin da izan maizak azaltzen dituen baina errealtatean behatu ez diren nozioen pilaketa; izan behar da, alderantziz, ingurune errealean behaketa, horrela erlazionatu eta konparatzen bait ditu hurrak datu berriak lehendik ezagutzen zituenekin. Horregatik, behaketa erreala posibilitatzen duten ekintzak hartzen ditugu beti abiapuntu bezala.
- Ekintzak helburu konkretua izan behar dute, baina ez bakarrik irakaslearentzat: hurrek ere argi izan

behar dute helburu hori. Gaiak lan proiektuetan kokaturik, badakite hurrek zein izango den bukaeran burutuko duten azken ekintza (liburu bat osatzea, erakusketa bat montatzea, jai bat ospatzea...) gainera egiten dituzten ekintza partzialak azken ekintza burutzeko pausu bezala agertzen zaizkie.

- Hizkuntz arloko edukiak, gaiak eskatzen dituen hizkuntz erabilera ezberdinen inguruan antolatzen dira, konkretoki "Atalase Maila"n oinarritu gara edukiak definitzeko kontzeptuak eta beraien progresioa:
 - . Gaia
 - . Hizkuntz funtzioak
 - . Nozioak
 - . Formak
- Edukien aurkezpenean, adierazpen espontaneoaren prozesu baten emaitza da, eta prozesu honetan hurrak bere produkzio pertsonala eraikitzeko eredu ezberdinen bidez esperimentatzeko aukera eduki behar du: horregatik, aurkezten den eduki berri bakoitzerako progresio bat jarraitzen da:
 - . Ereduez jabetu
 - . Produkzio mugatua
 - . Produkzio pertsonala

Jarraian Arrasateko ikastolako murgiltze eredu-ko irakasleekin elkarlanean prestatutako programaketa bat azalduko dut.

Programaketa hau O.H.O.ko 2. mailako haurrei zuzenduta dago.

Programatzeko pausuak

- 1.-Esperientzia arloko helburuak finkatu
- 2.-Helburu bakoitzari dagokion hizkuntz arloko helburuak eta edukiak finkatu, beti kontutan edukiz esperientzia arloko gaiek sortzen dituzten behar komunikatiboak.
- 3.-Azken ekintza finkatu.
- 4.-Helburu bakoitza lantzeko emango diren pausuak, ekintzak eta ekintzen progresioa finkatu.

URA

INGURUNE FISIKOAREN EZAGUTZA

- 1.- Ura ezagutu
 - Urak dituen berezitasun fisikoez jabetu:
 - . Kolorea
 - . Saporea
 - . Forma
 - Behaketaren bidez urak jaso dezakeen aldaketaz jabetu.
 - Urarekin egindako esperimentuen arrazoiak jabetu.
 - Behaketaren bidez uraren zikloa ezagutu eta azaltzeko gai izan.
- 2.- Uraren eragina ingurunean
 - Uraren arabera paisaian ematen diren berezitasunaz jabetu.
- 3.- Uraren beharra
 - Urak gizakientzat duen garrantziaz jabetu
 - Urak nola zaindu, uraren inguruan portaera positiboak garatu

HIZKUNTZ HELBURUAK

A. Ura nolakoa da

Urak dituen berezitasun fisikoak ezagutzeko eta azaltzeko gai izan.

Hizkuntz funtzioak

Informazio funtzioak

Nozioak

Kolorea, saporea, forma,...

Formak

Ezetzta, partitiboa

Lexikoa

Urarekin esperimentuak egin aurretik, gertatu daitekenari buruz hipotesiak formulatzeko gai izan.

Hizkuntz funtzioak

Informazio funtzioak

Nozioak

Kausa-efekto

Formak

Baldintza erreala

Konparatiboa

Uraren zikloa ezagutu eta azaltzeko gai izan

Hizkuntz funtzioak

Informazio funtzioak

Nozioak

Sekuentzia

Formak

Lexikoa

Denborazko perpausak

B. Uraren eragina ingurunean

Uraren arabera paisaian ematen diren berezitasunak azaltzeko gai izan.

Hizkuntz funtzioak

Informazio funtzioak

Jarrera funtzioak

Nozioak

Nolakotasuna

Kausa-efekto

Atsegina-atsegin eza

Formak

Konparatiboa

Kausalak, lexikoa

D. Ura behar dugu

Uraren garrantziaz jabetu ondoren besteei ohar arazteko sloganak asmatzeko gai izan.

Hizkuntz funtzioak

Ekintza funtzioak

Nozioak

Modua, Kausa-efekto

Formak

Ezeta

Baldintza erreala

Perpaua kausalak

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK

Azken ekintza

Uraren inguruan jaso eta landuko dituzten informazio guztiekin liburuska bat osatu.

1. Sekuentzia didaktikoa

Liburuaren sarrerako uraren inguruan igarkizun bat asmatzeko gai izan.

Ekintzak

- . Zerrendatu uraren berezitasun fisikoak
- . Urak ez dituen berezitasunak zerrendatu (Ezeta, baietza)
- . Ume bakoitzak bere asmakizuna idatzi

2. Sekuentzia didaktikoa

. Hipotesiak formulatzeko gai izan.

Ekintzak

- . Irakasleak esperimentu bakoitzaren inguruan, galdera batzuk planteatuko dizkie haurrei, hauek hipotesiak formulatuko dituzte eta esperimentua egin ondoren egiazkoak diren ala ez konprobatuko dute.

3. Sekuentzia didaktikoa

Urarekin egindako esperimentuak azaltzeko gai izan

Ekintzak

- . Esperimentua azaltzeko pausuak aztertu:
 - . Nola, zer ikusi dugu, arrazoiak
- . Esperimentuak eta azalpena burutu:
 - . Esperimentuak irakurri
 - . Esperimentuak egin
 - . Esperimentuak azaldu, ahoz
 - . Esperimentuak liburuskan idatzi

4. Sekuentzia didaktikoa

Uraren zikloa ezagutu ondoren azaltzeko gai izan

Ekintzak

- Marrazkiaz baliatuz uraren zikloa azaldu aurretik ondoren
- Marrazkiei testuak jarri
- . testuak ordenatu

5. Sekuentzia didaktikoa

Uraren arabera paisaian ematen diren berezitasunak azaltzeko gai izan.

Ekintzak

- . Marrazkiaz baliatuz uraren eragina behatu
- . Klasifikapena eta konparaketak egin
 - . lehorrena...bustiena
- . Gehien gustatzen zaien paisaiaren marrazkia egin
 - . atsegin...atsegin eza

6. Sekuentzia didaktikoa

Uraren beharra azaltzeko gai izan.

Ura zaintzearen beharraz argudioak egiteko gai izan

Ekintzak

- . Uraren erabileraz eta beharraz elkarrizketa bat sortu
- . "Urik edukiko ez bagenu"... (erantzun ezberdinak asmatu)
- . Ura aurrezteko aginduak aztertu eta beraien portaz erreflexionatu
- . Kutsadura ikusteko ibai ezberdinak behatu

Publizitatea

- Iragarkiak asmatu
- Ereduak irakurri
- Adjetiboak aukeratu, konparatiboa, superlatiboa
- Esloganak asmatu

IKASTOLAKO JAIALDIAK

Ekintza bateratuen abiapuntua

Kurutziaga Ikastola
Durango

Orain dela urte batzuk, Ikastolako ume guztiak ezer gutxirako batzen zirela eta, bertoko irakasleok galdezka jarri ginen ea ez litzatekeen interesgarria, eta eragingarria gainera, ekintza bateratuak egitea.

Baietz ikusirik, aurrera jo genuen eta antolatzeari egin genion.

Abiapuntu bezala inguruko eta sasoiko gaiak erabiltzea erabaki genuen.

Apurka apurka hasi eta laister izan genituen 4 jaialdi antolaturik.

1) Jaialdi hauek urteko sasoi edo herriko giza-ekintzaren batekin loturik dagoz. Umeak motibatzeko oso interesgarriak dira, beraz.

Halan bada, Irailaren bukaeran eta Urriaren erdian Iurréta eta Durangoko jaiak direnez, guk ere Ikastolan bertoko "Jai" antolatzen ditugu. Urriaren bukaeran izaten da. Honetan, 5. mailarteko ikasleak parte hartzen dute.

2) Gabon inguruan "Olentzaroren eguna". Olentzaro Ikastolara basotik etortzen da eta haren harre-ra eta eskakizunak prestatzen ditugu, zeren eta berak ere urtero mezu bat eta gelarako erregaliak ekartzen bait dizkigu.

Ekintza hoentan ere 5. mailarteko umeak parte hartzen dute. Goi Ziklokoek "Sto. Tomas eguna"

ospatzen dute, jokuak, erakusketa, dantzaldiak eta egun horretan ohitura den legez, txorizoa janez.

3) Ihauterietan, Ihauteriak antolatzen ditugu, astearte goizean. Ekintza honetan, Ikastolako haur guztiek parte hartzen dute dantzaldi batean, baina asko direnez ziklo bakoitzak berak ere badu ere aparteko ikustaldia.

4) Udaberriaren etorreran, "San Juan eguna". Honetan, urteko lan batzuren erakustaldi bat antolatzen da, baita ere 8. mailako umei euren ikasbidaiaren kostean laguntzeko, maila bakoitzak beren eskulanak salduz azoka txiki bat eratzen du. Honez gain, 8. mailako ikasle, irakasle eta gurasoek antolaturik afaria eta dantzaldia, eta azkenez San Juan Sua.

HELBURU OROKORRAK

Ekintza berezi hauek programaketa arruntaren barruan daude eta hauen inguruan heziketako arlo ezberdinak lantzen dira.

Ikasmaila bakoitza zeregin ezberdinak antolatu eta burutzen hasten da, gero, azken jaialdian, ikasle denen lanaren fruitua agertzen delarik.

Ekintza hauek direla eta, ikasleek Euskalerriko ohiturak ezagutzen dituzte eta euren herriarekiko identifikazioa lor dezatela nahi dugu, bertoko senti daitezen.

Honez gain, ikasle ta irakasle bakoitza bere gela txikiko mundutik atera eta beste kolektibo haundi batetako partaide sentiarazten gaituelako, eragin haundia dute, batasun sentimendua sortarazten digutelako. Eta gainera, gela bakoitzak bere emanaldi edo ekitaldi txikiaren jaialdi haundi bat osatzeko parte garrantzitsua dela igartzen du, ume bakoitza egile eta eragile sentitzen delarik.

EKINTZEN ETA HELBURUEN ZEHAZPENA

Aurten ospatu dugun "Ikastolako Jaian" maila bakoitzean egindako ekintzen azalpena, jarraian azalduko dugu.

2 eta 3 urte:

Apainketa pertsonala.

Barraketan ibiltzeko fitxa egin.

Martxanteretan zeredozertxo erosteko txanpona egin.

Hautentzat helburua, batez ere, jai giroa bizitzea eta horretarako prestatzea da.

4 urte:

Barrakak egin eta barrakariak izan. Beste umeak euren barraketan erabili.

Helburua: Herriko jaietan beti parte hartzen duen elementu bat ezagutzea, barrakak, eta hauetan disfrutatzea. Behin euren barrakak burutu ondoren, beste umeei lagatzeko gai izatea, eta hauek euren barraketan erabiltzerakoan antolaketa txiki bat errespetatzea.

5 urte:

Buruhaundiak prestatu eta buruhaundienak egin: umeen atzean jolasten eta globoaz joka ibiltzea.

Helburua: Herriko jaietan parte hartzen duten beste elementu batzuek ezagutzea: buruhaundi hauen bete beharra jaien barruan.

Jolas giroa sortzea, jaialdian.

Lehen maila:

Jolasak antolatzen dituzte, euren artean jolasteko eta baita ere beste ikasmailen artean.

Helburua: Zein jolas burutuko dituzten pentsatzea. Hauen antolamendua pentsatzea. Besteentzat zeozer antolatzea, denak ondo igaro dezaten.


2. maila:

Martxanteretan janaria saldu, eurek martxanterak direlarik.

Helburua: Besteentzat hamarretakoa prestatzea, 450 pertsonentzat.

Errezetak ikastea, euren dendatxoan zer aukeratu egon dadin.

"Martxanteren" (herriko gozoki saltzaile) dendaren antolaketa.



Martxanteren lana azalduko dizuegu

Tal dika per tratzen
au giron. Talde biek pastak
egitea pentsatu zuten.
Beste talde biek burutuzeko
gaurak egin genduen
eta talde biek antolatzen
jaino baten eragin zehatzen.

Gai zaldi
taldea gara eta
martxanteren
antolatzaile gindugu eta
asiko gurea zalguru
gure aintzengo lana.

ZALDI TALDEA



Elomitat egitea antolatzen
antsa elisa eta purina
gaita behar zuten. Pastak
egiteko materiala hain zera
antolatzea behar den izan.
Behar zuten auzokian hain zera
burutuzeko gaita egiteko
behar zuten burutuzeko eta
margat.



3. maila:

Txaranga prestatu
Jaialdian zehar abestuko diren
abestiak doinuz laguntzen ikasi.
Helburua, jai alaitzea.

4. maila:

Donien-hatxa prestatu. (Herrietako jaien hasieran plaza erdian jartzen den tantai luzea. Aintzinako sinesmenen sinboloa).

Dantzak ikasi: Txotxongiloa, xoxo dantza,...

Helburua: Donien-hatxaren jatorria ezagutu.

Bertoko dantza batzuk ikasi.

5. maila:

Erraldoiak erabili.

Euren lanekin erakusketa bat prestatu.

Helburua: Jaia alaitu.

Erakusketaren antolaketa pentsatzea ta burutzea.

Jaialdian zezen batek ere parte hartzen du, ez benetakoa, noski. Zezen hau, gehienetan, 2 eta 3 urtekoen geletako irakasleak prestatua izaten da.

4 URTEKO UMEEKIN EGITEN DITUGUN EKINTZAK

1 - Elkarrizketa:

Umekin egingo ditugun gauzei buruz elkarrizketa. Durangoko jaiak direla eta, barrakak etorri dira eta bertara joango gara. Zer iruditzen zaizue?...

2 - Irteeraren gertakizuna:

Zer ikusiko dugu barraketara goazenean? Galdera hau eginez, euren proposamenak jaso eta gureak ere azaldu.

- Ume bakoitza ibilgailu batean ibiliko da.
- Obserbatu bere ibilgailua.
 - Zenbat gurpil duen
 - Nolako kolorea duen

3 - Irteera: barraketara joan

Ibili aurretik ibilgailuak obserbatu (kolorea, forma, argiak...)

4 - Irteera ondoren gelan elkarrizketa

Ibilgailuaren irudiak marraztu harbelean eta ume bakoitzaren izena ibilgailuaren azpian idatzi.

- Non ibili zinen?
- Norekin ibili zinen?
- Gustatu zitzaizun?

5 - Erabili duten ibilgailuaren marrazkia egin

Taldetan galdetu: ia zein gustatu zitzaaien gehien.

- Nolako kolorea zuen
- Zenbat gurpil zituen

6 - Murala egin

Bakoitzak erabili zuen ibilgailuaren irudia puntzoiz atera eta margotu.

- Elkarrizketa izan ondoren denon iritzia kontutan izanik, sokaz, lurrean ibilbidea egin. Gaietik ibili.
- Paper zuri handiaren gainean ibilbidea egin:
 - Barraketako ibilgailuak ibilbidean erantsi.
 - Azkenean, ormirudia osotu, bertan ikusi zituzten barraka eta gauzekin.

7 - Jolasa

Ibilgailuetara jolastu:

- Trenak: txuku-txuku...
- Kotxeak: pi, pi...
- Motorrak: brr, brr,...
- Suhiltzaile kotxeak: ñ ñ ñ...
- Paitak: kua, kua, kua...

Libreki: Gelatik zehar hots eginez.

– Kontsignak:

Ertzainak ematen ditu.

Zai dago eta betetzen ez dituen aparkalekura eramaten du.

a) Bakoitzak, bere ibilgailuaren hotsa egin behar du.

Aginduak: (Hitzez, txartelez emango ditu)

- Gelatik zehar motorrak ibiliko dira
- Gelatik zehar paitak ibiliko dira.
- Motorrak eta paitak
- Ezezkoak erabili: Motorrak ez direnak

b) Ibilbide bat egin eta hemendik ibili behar dira. Ertzaina zai dago, gaizki egiten duena aparkalekura eramaten du.

Ibilbideak semaforoak ditu (gorria, berdea) pasatzeko edo gelditzeko.

8 - Gelara, trenak, kotxeak eta motorrak ekarri

- Taldean, bakoitzak bere kotxearen edo motorraren deskribapena egin behar du (kolorea, neurria, gurpilak...)
- Ibilgailu guzti hauek gordetzeko aparkalekuak egin.
- Ume bakoitzak bere kotxea aparkalekuan sartu eta aparkaleku bakoitzari txartel bat jarri desberdintzeko.

9 - Ibilgailuaren txartelak margotzeko eman.

Bakoitzak txartela ipinita kotxeetara jolastu:

Ibilgailuak gara:

Norbere gorputzarekin konparaketa bat egin: aurrean: aurpegia...

Bolantea non izango dugu?

Argia...

Matrikula...

Eskape tuttoa...

10 - a) Gelan egindako ibilbide baten gainetik ibili (binaka).

Aurretik ikasi dute:

a) Zuzen, alderdi batera eta bestera, frenatu, semaforoen koloreen esanahia.

b) Gidabaimenak egin eta ibilgailuaren marrazkia izena, ondoren eman.

d) Ibilbide nagusian irteerak seinatu txartel batzuen bitartez.

Ibilgailuen txartelak banandu: ume bakoitza bere irteeratik joan behar da eta dagokion aparkalekuan gelditu.

Bakarkako lana – paperean adierazi

11 - Ibilbidearen gainean ekarritako kotxeekin se-riaketan egin:

Kontsigna: Berdinak direnak ez elkartu.

Ume bakoitzak zer ipintzen duen eta zergatik azaldu behar du.

Paperean adierazi.

12 - Jaietarako barrak egin:

– Bolanteak eta argiak puntzoiz zulatu eta margotu.

– Eskape-tuttoak: komuneko paperen tubo tenperaz margotu.

– Gurpilak: artaziz ebaki eta margotu.

– Matrikulak: Paper zuri baten margotu.

– Guk ditugun gurpildun kaxak forratzeko, kartoizko kaxa handi batzuk margotu (tenperaz). Aurreko kristala (kaxaren tapa bat tente ipinita) zuriz margotu. Ateak ebaki.

– Taldeka, bere kotxean, aurretik egindako zati guztiak erantsi egiten dituzte.

13 - Abestiak:

• Dira, dira...

• Buruhandiak...

• Kanean gora...

• Patxikotxu...

• Trikitrilariak...

• Durangoko herria...


14 - Barraketarako sarrerak egin

– “ZEZEN AUSARTA”ren ipuina landu.

Hango elkarrizketak, hiztegia, etabar, landu.

Ipuina dramatizatu.

Azaldutako gauzak gure lanaren laburpentxo bat baino ez dira. Adin bakoitzean 4 urtekoen adibidean aipatzen diren ekintza mota definitzeaz gain, bakoitzari dagozkion helburuak eta ebaluatzeko erak jarrita ditugu.




ANTZEZPENERAKO IRUDIAK

1. TEATRILOAK

Ormirudi haundi batek egoera edo espazioa aurkezten ditu. Istorioa jarraitzeko dauden pertsonai euskarridunak mugituz hainbat ekintza egin daitezke:

- Bakoitza dagokion tokian jarri
- Kontaketa egin ahala pertsonaien eginkizuna adierazi...
- ...



2. ORMIRUDIAK



Ipuinak aurkezten dituzte pasarteka. Posibilitatzen dituzten ekintzak:


- entzun ahala identifikatu
- deskribapenak egin
- ordenatu
- ...



3. TXONTXONGILOAK

Ormirudiak ipuina kontestualizatzen du. Txontxongiloak eskuaz mugituz antzeztu, elkarrizketak asmatu e.a.... egin daitezke.





DOKUMENTAZIO ZENTRUA (0-7 urte)

IRAKASLE ESKOLA

Escuela Universitaria del profesorado. Tel. 790440

ESKORIATZA (Gipuzkoa)
